



32 Kirola: Antonio Bru

Korrikalari beratarrek ustegabeen Nafarroako Kros Txapelketa irabazi zuen. Orain, otsailaren 8an Lizarran burutuko den Euskadiko Txapelketan iazko 6. postua hobetu nahi du.

Lesakako lizentzia eskuratzeko eskaera aurkeztu du Xorroxinek

Xorroxin Irratiak joan den astean aurkeztu zuen lizentzia eskaera Nafarroako Gobernuko Herrilan Saileko erregistroan. Eskariarekin batera, eskualdeko elkarte, talde eta udalen atxikimendu ugari jaso dituzte Xorroxin Irratikoek. Egin zuten deiak «*arras erantzun ona izan du. Ez genuen horrelakorik espero*» diote atseginez.

Izan ere, Espainiako Gobernuak onartutako dekretuaren arabera, Nafarroari zortzi lizentzia berri dagozkio. Iruñerrian bi, eta bana Tuteran, Zangoztan, Izaban, Larraunen, Lizarran eta Lesakan. Lizentzia banaketa Nafarroako Gobernuari dagokio, eta emititzen

Nafarroako Gobernuak hilabete batean argituko du Lesakako irradi lizentzia nori ematen dion

ari diren 38 irratietatik bakar bat ere euskalduna ez dela ikusirik, hainbat taldek eta erakundek eskatua diote irrati euskaldunentzat lizentziak gordetzeko, eta horrela, dagoen egoera desorekatua konpontzeko. Nafarroako Gobernuak ordea, muzin egin dio aipatu eskaerei. Zentzu honetan, lizentziak banatzerakoan erabiliko diren erizpideak alde batera utzita, «*Kriterio politikoan*» pisuaz beldur dira Xorroxin Irratikoak. **3**



Sostengu zabaleko irratia

Eskualdeko udal guzien atxikimendua eta baita elkarte eta talde gehientsuenena ere bildu dute, «*gibeletik oinarri sendoa daukagula erakusteko Nafarroako Gobernuari*». Ikusi egin behar kontuan hartuko den!

4 Erreportaia: Hasi dira kupelak hustutzen

Ideki dituzte atek eskualdean ditugun bi sagardotegiek.

ALE HONEKIN BATERA: Gida 98.

Herriz herriko ofiziale, saltoki, lantegi eta zerbitzuen Gida Komertziala



ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko
mobeak

Kalitatea prezio egokian



Hilabeteko eskaintza berezia

Armairua (199), ohatzea (135), komoda (112), mahaittoak (52) eta ispilua bere markoarekin (95)



ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034

LESAKA

Erakusketa berritzeagatik %30a bitarteko **DESKONTUAK**

Nobedade Espainian



Auto baten itxura eta osagarriak
(kalefakzioa, irrati-kasetea...)

Moto baten kondizioetan

Auto karnetarik gabe

(Mobilettaren permisoarekin)
14 urtetik gorakoentzat eta
adineko jendeak erabiltzeko
moduan

Bi lagunendako lekua
Diesela, bi zilindroduna
Martxarik gabe,

automatikoa (Antzinera-Gibelera)

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

Juan LARREGI «BITXO» Tailerrean

Santiago, 10 • ☎ 580898 • ELIZONDO

DATUAK.....

❖ Nafarroako Gobernuak Lesakarako emanen duen irrati lizentzia eskuratzeko eskaria aurkeztu berri du Xorroxin Irratiak.

❖ Herriz herriko laguntzaile eta korrespontsalez gain, sei lagun ari dira lanean Xorroxinen.

❖ Emisio orduei dagokionez, goizean 7,30etatik 2etara eta arratsean 7etatik 10etara ematen dute. Gainerakoan musika izaten dute.

❖ Iruñeko Euskalerrira Irratiarekin batera kanpaina ttiki bat egiteko asmoa dute Nafarroa mailan, «euskararen defentsan».

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

✎ **XORROXIN IRRATIA** *Baztan-Bidasoako irratia*

“Euskarari ez diote garrantzirik eman irrati lizentziak banatzerako orduan”

ZERTAN DAGO LESAKAKO IRRATI LIZENTZIA-REN EGOERA?

Orain dela bi hilabete Madrilgo Gobernuak Nafarroako Gobernuari irrati lizentzia komertzial batzuk eman zizkion, honek banatzeko. Abenduaren 20an agertu zen lehiaketa deialdia eta bertzeen artean, Lesakarako lizentzia bat banatu behar da.

ZEIN ERIZPIDE HARTUKO DITU KONTUAN GOBERNUAK LIZENTZIA EMATERAKOAN?

Guk beti salatu dugu euskarari ez diotela inolako garrantzirik ematen. Zonalde euskaldunean egonagatik, euskara hutsez egiteagatik ehunetik hamar puntu ematen dituzte bakarrik. Euskaraz pixko bat egiten duen irratiak bortz puntu jasoko ditu, beraz bortz puntuko aldea bertzerik ez. Horretaz gain, produkzioa herrian bertan egitea, bertako jendeak parte hartzea, nolabait Nafarroako eta bertako ondare kulturala gordetzea, solbentzia ekonomikoa eta profesionala eta proiektu teknikoa baloratuko dute. Hori da idatzia dagoena, baina gero subjektiboki banatzen dute, kriterio politikoak nagusitzen dira.

ESKARIAREKIN BATERA, ESKUALDEKO ELKARTE, TALDE ETA UDALEN ZIUR-



«Legea Madrilen egina da, irrati kate komertzial haundietan pentsatuz».

TAGIRIAK ERE AURKEZTU DITUZUE. HAUEN ALDETIK, NOLAKO ERANTZUNA JASO DUZUE?

Arras ona, nik behin behin ez nuen horrelakorik espero, harrিতa nago. Xorroxinen parte hartzen dutela eta irratien lana beharrezkoa dela adieraziz sinatutako agiria dira. Gibelean oinarri sozial sendo bat daukagula erakutsi

nahi diogu Nafarroako Gobernuari. Gero, bigarren fase batean, Iruñean banatuko diren bi lizentzietako bat eskuratu nahi duen Euskalerrira irratiarekin batera bertze kanpaina bat egiteko asmo dugu.

XORROXIN DAGOENAKO LESAKAN ADITZEN DELA KONTUAN HARTUZ, ZERTARAKO NAHI DUZUE LIZENTZIA?

Lizentziarik ez dugulako. Orain zazpi urte Elizondoko lizentzia eskuratzeko eskaria egin genuen eta ukatu ziguten. Urtebetera bertze

lehiaketa bat atera zen udal lizentziak eskuratzeko. Balleko Etxeak eskatu eta eman zioten. Udalarekin akordioa sinatu eta guri utzi zigun lizentzia hori baina Nafarroako Gobernuak ez du hori onartu. Egia erran, Lesaka edo Elizondoko lizentziarekin ez dugu ja egiten, gu eskualdeko ikuspegitik begiratzen baitugu. Legea Madrilen egina da, irrati kate haundietan pentsatuz eta hortaz ia ziur gaude ez digutela guri emanen Lesakako lizentzia.

▷ *“Kultur eta kirol taldeen eta arlo instituzionalaren atxikimendua jaso dugu Lesakako irrati lizentzia eskaria egiterakoan”*

Txotx garaian gaude berriz ere. Udazkenaz geroztik sagardogileak gogor aritu dira lanean iaz hustu genituen kupelak betetzeko: sagarrak bildu, tolaretik pasatu, zanpa-zanpa egin eta hortik ateratzen den mostoa sagardo bihurtu dute ongi irakin eta gero. Eskualdean sagardotegi gutti dago, bainan oraindik ugari dira etxean edateko sagardoa egiten duten baserritarrak.

TESTUAK: ASIER GOGORZA
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

Gaur egun Gipuzkoa da sagardoaren lurraldea, Astigarraga, Hernani eta Urnieta inguru hori bereziki, bainan Nafarroan ere badira zenbait sagardotegi, gero eta gehiago, nahiz eta garai hobekoak ezagutu diren. Julio Caro Barojak erran zuenez, aspaldi-aspaldian sagardoa omen zen -pittarrarekin batera- Nafarroako mendialdeko edari nagusia, ardoa besta egunetan bakarrik hartzen zen bitartean. Beran bertan badakigu 10 sagardotegi zeudela 1920. urtean, eta herritik mugitu gabe eskuratzuten zuten, gainera, beharrezko sagar guztia. Lehen mundu-gerraren aitzinetik, bertalde, egurrezko kupelak egin eta Frantziara saltzen zituzten bi lantegi omen zeuden Lesakan.

Denborarekin ohiturak aldatu egiten dira, halere, eta sagarrondoak eskastearekin batera, sagarrak garai bateko protagonismoa galdu zuen inguru hauetan. Horren ondorioz bertako sagardozaleek Gipuzkoako kupeletarajo zuten, eta



azken finean horren urrun ere ez dagoenez, sagardo denboraldian zehar gaur egun ugari dira hemendik harat abiatzen diren lagun koadrilak. Bainan ez dira sagardozale guztiak Gipuzkoara begira gelditu.

Hemen ere txotx

Aurten bi sagardotegi dira gure eskualdean txotx egiteko aukera ematen dutenak. San Anton bezperan eman zioten hasmenta Lekarozko Larral-

dean denboraldi berriari. Pertsonai ezagun ugari gonbidatu zituzten besta-afarira; goitiko argazkian ageri diren Osasunako jokalarari eta entrenatzaileak, Iñaki Perurena, Nafarroako EHNEko lehendakaria Mikel Petrirena, Pottoka abeslaria, Mariano Izeta, Mikel Goñi pelotaria... eta baita komunikabide desberdinetako kideak ere.

Koxkonta jatetxe-sagardotegiak, aldiz, joan den astean ide-

ki zituen atek zenbait berrikuntza egin ondoren, eta Aste Santua pasa arte izanen da txotxerako aukera.

Bertan egin edo egina ekarri

Larraldeko Gregorio Elizetxe eta Jesus Garcia bertako sagarra promozionatzearan aldekoak dira eta Nafarroako sagarrondo-plantazio jabeen elkarreko kide dira gaur egun. Lekaroztarrek beren sagardoa produzitzen duten bitartean



Josetxo ETXEGARAI *Koxkonta sagardotegi-jatetxeko nagusia*

“Jendea sagardotegira joan bai, bainan ardo botila mahaian”

✓ Nola konbinatzen duzue sagardotegia jate-xarekin?

□ Guk sagardotegiarekin hutsune bat betetzen dugu, neguan ez baita horrelako lanik izaten jatetxean. Langile plantila osoa kontserbatzeko balio digu, eta orain dela sei urtetik honat oso balantze polita egiten dut. Ez

da hori bakarrik, ni sagardo-zalea naiz bestalde, nere aiton-amonek egiten zuten eta beti gustatu izan zait sagardotegiko giroa. Beste batzuk hasi eta utzi egiten dute, dedikazio handia eskatzen duelako.

✓ Ze prestaketa egin duzue denboraldiari begira?

□ Aurten 22.000 litro pres-tatu ditugu, iaz baino gutti-xeago. Kupel batzuk bete gabe utzi ditut. Gehienez 5 edo 6 mila litro edaten dira txo-txean, eta gainera botiletan sartzen dugu apiril erdialde-

tik maiatza bitarte horretan. Bestalde zutikako kupelak kendu eta etzandakoak paratu ditugu, itxura politagoa du horrela.

✓ Beraz, apiril erdialde-rarte izanen da idekia sagardotegia?

□ Aurten sistema berri bat dugu sagardoa hozteko, nahiz kanpoan epela izan sagardoa kontserbatzeko. Orduan pentsatzen ari gara denboraldia luzatzea, 10-12 gradotan kontserbatzen badugu ez delako mingosten nahiz kanpoan bero egin. Iparraldetik jende puska etortzen zaigu

udan eta guzi sagardotegiaz galdezka. Saratarrak, urruñarrak, azkaindarrak, ezpeletarrak... iparraldeko bezero aunitz ditugu, eta hoi-entzat bederen kupel tiki bat eduki nahi dugu botilatu gabe.

✓ Eskualdeko jendea sagardo-zalea da?

□ Orain jendea gogo ikaragarriekin dago, telefonoz galdezka... Hemengo jendea sagardotegira joan bai, bainan ardo botila mahaian, hori ez dadila faltatu. Ze egin behar duzu, eskatu ezker oateri eta kitto!

–Baztan-Bidasoako sagarrekin 6.000 litro eta gainerakoa Gipuzkoa eta Asturiaskoekin–, Koxkontakoek kanpotik egin a ekartzen dute. «*Urnieta-rrak dira guri sagardoa egiten digutenak. Haiek urte aunitz badute lan honetan eta badakite sagar-nahasketa ongi egiten. Garantizatu dago sagardo ona ateriko dela*». Horixe erran digu Josetxo Etxegarai Koxkontako nagusiak, bainan etxean edateko haina sagardo egiten dutela aitortu digu «*hortik goiti ez, lan handia eskatzen du eta gainera sanidadekoek ez li-guketelako utziko*».

“Edateko nahiko erraxa”

Adituek aipatu dutenez, grado guttiago ditu aurtengo sagardoak. Gregorio Elizetxeren ustetan iazkoaren gisakoa da beraiek ekoiztu dutena. «*Edateko nahiko erraxa da, normala, ez da samintasun fuertekoa izaten hemen. Orain Sagardotegia idekitzen dugunean oraino nahiko frexko dago, nahiko berria beharbada. Sagardo hau denborarekin jotzen da egiten eta gaur edan eta hemendik 15 egunera edan diferentzia nabaritzen da. Botiletan sartzean pixket hobexagoa egoten da*».

Txotxean edaten ez den sagardoa botiletan saltzen dute sagardogileek, eta Euskal Herri

osoan kantitate handiak egiten diren arren merkatua nahiko mugatua da oraindik. Josetxoren ustez «*orain Madril-en edo Zaragozan, adibidez, sagardoa eskatu eta El Gaitero aterako dizute beharbada, bainan ez sagardo dezentte bat. Petritegi, Saizar eta Zapirain bezalako saltzaile handiek esportatu egin beharko lukete, sagardo guzia ezin salduz aritzen baitira. Ardo-a etsai handia da, gainera*». Batez ere hemen, Nafarroan. ■

ESKUALDEKO SAGARDOTEGIAK

Larraldea

□ **Non:** Lekarozko elizaren eskuinaldeko bidetik hartuta 1,5 kmtara. Badaude seinaleak.

□ **Txotxaren prezioa:** 450 pta.

□ **Menua:** Bakailu tortila, ajoarrieroa, txuleta, gasna zaharra, giltzaurrak eta menbrilloa eta gaztain denboran Baztango gaztainak pitterrarekin serbitzen dituzte.

□ **Prezioa:** 2.000-2.500 pta inguru.

□ **Noiz:** Sagardotegia apiril ondarrarte egonen da zabalik. Abuztuan jatetxea ere itxizten dute.

□ **Telefonoa:** 452121.

Koxkonta

□ **Non:** Lesakako sarreran, fabrika aldera doaien bidea hartuta, eskuin aldean.

□ **Txotxaren prezioa:** 450 pta.

□ **Menua:** Bakailu tortila, bakailu prexita piper berdeekin, bi zerri txuleta edo rapea, txitxarroa...

Intxaurrak, gasna, menbrilloa eta nahi izanez gero whisky-tarta edo etxeko kopa... Sagardotegi eta jatetxeko menuak konbinatu daitezke.

□ **Prezioa:** 2.500 pta inguru.

□ **Noiz:** Asteazkenetik igandera.

□ **Telefonoa:** 627503-627519.



Koxkonta sagardotegiak itxura berria du, bertzeak bertze zutikako kupelak kendu eta etzandakoak sartu dituzte eta.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.500 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

<http://www.encomix.es/tpi-ttapa>

e-mail:

tpi@encomix.es

uzendaria: Joxemanuel Iri-

oi. **Publizitatea:** Miren Kar-

nele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-

or Arozena, Asier Gogorza, Jo-

xemanuel Irigoien. **Administra-**

zioa: Amaia Goia. **Erredakzio**

aldea: Pello Apezetxea, Juai-

as Paul, Kristina Boan, Bittori

elletxea. **Berriemaileak:** Jo-

seba Azpiroz, Esteban Arozena,

uana Mari Saizar, Ainhoa

lutuberria, Iban Isasi, Txema

ldabe, Patxi Otxandorena, Jai-

o Otxandorena, Alba Fernan-

dez, Pablo Mendiburu, Joseba

arabide, Alizia Olaizola, Mar-

ari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

kel Gerendiain, Jacqueline, Eli-

abet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

ar Txoperena, Pello Apezetxea,

itor Arozena, Asier Gogorza.

olaboratzaileak: EHNE Nafa-

oa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

er Etxeberria...

primategia: Gertu.

tpi-ttapa ez du bere gain har-

en derrigorrez, aldizkarian adie-

zitatiko erranen eta eritzien eran-

ukizunik.

arakunde Laguntzaileak: Be-

l, Leiza, Goizueta, Areso, Baz-

n, Urdazubi, Zugarramurdi eta

arako udalak, Bortziritako Eus-

ara Mankomunitatea, Malerre-

ako Zerbitzu Mankomunitatea,

ugarramurdiko Akelarre Elkar-

a...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Garai bateko inauteriak

Gauzak asko aldatu dira, lehen ilun-ekzilak jo orduko erretira izaten zen segituan



Luis ELIZEGI
Goizueta. 58 urte.

Tolosakoekin batera izaten dira Goizuetako inauteriak, igande, astelehena eta asteartean.

Nik orain 58 urte dauzkatz, eta 17 urterekin soinu-jotzen ateratzen hasi nintzen. Lehen kriston paliza izaten zen baserri-baserri puskak biltzea, ez zegoen oraingo pistarik-eta. Orain puskak beharrezkoak izaten dira, eta baserri gutxiagotan.

Esanera izaten da ikazkilea menditik etorri eta mozkortu egiten zela eta emakume guzieren musuka ibiltzen zela. Mendiko gizaseme hori beti moxkorra nola ibiltzen baitzen eta garai haietan zahagiarekin eramaten baitzen ardoa, berari ere bizkarrean paratu eta herri guzitan kastigu ematen zioten, eta joka ibiltzen zuten. Aldiberean hemengo botikario batek konposatutako soinu jotzen dute. Hortik dantza bat sortu zen, Zahagi-dantza. Hori asteartean bazkalondoan izaten da, eta arratsalde-gau aldera kristoren giroa izaten da herrian, eta kanpoko jendea ere etortzen da.

Gauza asko kanbiatu dira, lehen ilun-ekzilak jo orduko erretira izaten zen, segituan, baino lasterka jendea, eh!

Gerla ondotik ospakizunak ez du sekulan izan lehengo fama hura



Martin DOLOSOR
Senperetarra

Ihauterietan Senperen etxez-ete gazteak ibilki ziren lehen 4 edo 5

laguneko ekipak eginez. Batzuk dantzariak "Kaskarot" gisa bezituri, taldeko batek eskusoinua jotzen zuten. Egia da frangotan mutil gazteak egiten zutela herriko itzuli osoa... eta batzutan ondoko herrietar ere gaten ziren indar piska bat gelditzen bazitzaient!

Halaxe ospatzen ziren ihauteriak 1930 inguruan baina gero gerla izan zelarik nehorik ez zuten gehiago segitu tradizio hau. Gerla ondotik multxoka ere gazteak hasi ziren herriko itzulia egiten "xingar eta arroltze" galdetuz... bai eta bertsoak eskainiz tarteka. Halere usai ez da sekulan berri hedatu herri guzirat, eta batzuek gogo handia baldin badute ere, ospakizunak ez du sekulan izan lehengo fama hura.

Dena den urte guziz ospatzen da ihauteria Senperen, herriko elkartek antolatutak. Karrikan ibilaldia egin eta gero erromeria izaten da Gantxiki pilotalekuan. Ez da ahanzi behar Zirikolat dantza taldeko gazteak etxez-ete ibiltzeko xedea dutela. Ea ba, bisita alai izaten dugun aurten!

Mozorro beltzak maskaratar batzuekin ibiltzen ziren, ahalik eta itsuskiena



Gabriel LEIZA
Aranzarra. 82 urte.

Diferentzia handirik ez dago lehenagoko eta oraingo inauterien artean. Bakarrik orain mozorro beltzak ez direla ateratzen, eta zaldizkorik edo hankamakilik ere ez. Zaldizkoak franko urtez ibiltzen ziren, baino gero galdu egin zuten. Urte politak izan ziren haiek...

Eskean aritzeko bi koadrila plantatzen ziren lehen, eta egun batez egiten zituzten baserri guziaz. Normalki sukalderraino sartzen ziren, eta denbora baldin bazuten gosaldia eta gero dantzan aritzen ziren. Biharamonean herria egiten zuten eta biltzen zutena ostalariari ematen zioten prestatzeko. Gero eskas izan ezkererik pagatzen zitzaion.

Gainerakoan mozorro zuriak oraingo posturutsura jauntzen ziren, galtza zuriak, pañulua eta zintekin, eta etxez-ete eskean ibiltzen dira eta herrian dibertsioa igualtso da orain ere. Mozorro beltzak, berriz, maskaratar batzuekin ibiltzen ziren eta ardi larruekin, ahalik eta itsuskiena... Inaute motz egunean, hondarko egunean, bizkarrean eramaten zituzten paper-boltsak erretzen zizkieten elkarri. Gazteen ibiltzea, badakizu...

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13tara eta 16etatik 20tara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



Iñauteriak

Miren BIDARTE (Lesakarra)

Doinua: Euskitzeren 6 puntutakoa

*Kolore biziz apaindu zaigu
negu hotzaren iluna
paregabea ostatueta
bizi den berotasuna.
Mozorroaren xarma dela ta
daukagun askatasuna:
gauaren edertasuna! (berriz)
Lotsak ahanzi, ta aldatzen da
eguneroko jarduna
zergatik inoiz baino le(he)nago
heldu ote da eguna?*

*Sunbillakoek karroza hoiekin
jaurtia dute gezia
Lesakan berriz, zako zaharrek
dute txoko merezia
Ituren eta Zubietan dagon
joaldun abilezia
mozorroen malezia... (berriz)
Nahiz eta denek festa berean
mugatzen duten hesia
herri bakoitzak gordeta dauka
bere kutsu berezia.*

Irunberriko Arangoiti
ikastolatik...

Fax hau igortzen dizuet Irunberriko udalak pasa den azaroan burutu zen udal batzarrean hartu zuen hitzarmena jakinarazteko asmoz. Akordio honen bidez, Udalak Euskararen Legea aldatzearen alde dagoela eta hau lortzearen Parlamentuko politikariek negoziatioetan ahaleginen dela hitzartu zuen.

Ezaguna denez, Arangoiti ikastola lekurik ezaren arazoa jasaten ari da. Momentu honetan 61 ikasle ditu haur eta primaria ikasketetan. Klaseak, antzinarako mojen etxe zahar batean, Udalak utzia, ematen dira. Leku eta ekipamendu eza konponduko litzateke modu bakar batez: San Juan eskola publikoko ateak zabalduz. Zentru hau, berria izan ez ezik oso ongi hornitua dago. LOGSE erreforma egin baino lehen 170 ikasle ikasten zuten eskola honetan. Momentu honetan, berriz, 55 umek baino ez dute ikasten A eremuan. Beraz, eskola honen instalazioen erdia baino gutxiago ez da erabiltzen.

Hala ere, helburu hori lortzeko Euskararen Legea aldatzea ezinbestekoa da, Irunberri eremu ez euskaldunetan sartzen baitu. Horrela, Irunberri eremu mistora pasako da eta gure herri euskarazko irakaskuntza bermatzea lortuko dugu. Badakigu legearen aldaketa lortzeko behar den gauza bakarra borondate politikoa dela. Lege horren erruz, Irunberriko gurasoen %50 baino gehiagoren nahia-

ri bizkarra ematen zaio, baita beren seme-alabei ere.

Udalak hitzartu duen akordioa oso garrantzitsua izaten bada ere, Ikastolako gurasook urrunago nahi dugu. Guk nahi duguna 18 urteko lana eta hezkuntz proiektua errespetatzea da, hau da, A eta D ereduak zentru berean egon daitezen baina ikastolaren nortasuna eta proiektu kurrikularra bermatzea.

ARANGOITI IKASTOLA

Zubietako pintadak
eta putadak

Pareta zikintzaleak eta gainerakoak indartsuak ditugu Zubietan. Herri hau nork gobernatzeko duen (edo hobekiago nork ez gobernatzeko) jakinda, ez da harritzekoa hau horrela izatea. Badiara hiru urte, gutxienez, pintadak egin zituztela plazan eta eskolan. Orduan esan omen zuten, orain alkate dagoenak eta bere taldekoek, politikak zirela. Bainan dirudienek gure alkatearentzat ez dira pintada guztiak hain politikak, edo urte berriak gusto berria ekarri dio umeari erregeak jostailuak ekartzen dizkieten bezala.

Ikusia dago urtezahar gauean egin zen pintada ez zela bate-re bere gustokoa, bere morroiak bidali baitzituen laister estaltzera. Gauza guzietan horrelako fundamentua egingo balu beste oilar batek kantatuko luke Zubietan. Pintada estali zuen bainan oraindik ez digu herritarrei esan nork eraman zituen Tre-pako alertzeak. Nere iritzian urtezahar gaueko pintada gisara hortxe geldituko da estalia alertze famatuen istorioa, herri honetan beste gauza askorekin gertatzen den bezala. Estaltzea modan dagoenez, badago beharra karrikako zuloetan. Legarra eta zemento pixka bat eta fundamentu pixka batekin aski izanen litzake eta herritarrok eskertuko genuke benetan.

KOTETO



OHARRA:

*Eritzi ezberdinek
tokia izan dezaten,
ez da komeni
makina idatzitako
25 lerro baino luzeago
idaztea gutun
hauetan. Idatzi
duenaren
izen-deiturak,
telefonoa, helbidea eta
Nortasun Agiriaren
fotokopia agertu
beharko dira. Laburtu
beharra izanez gero,
ttipi-ttapak bere
esku izanen du
horretarako eskubidea.
Ez dira argitaratuko
beren nortasuna ager-
tzen ez dituzten
iritzirik.*

koxkonta



*Sagardotegia
zabalik*

*Deitu
ereserbak
egiteko*

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESKA**

Inportazioko bakailua

BAKAILUA

Kalitate onena • Faroe irletakoa

• **BAKAILU GEZATUA BERE PUNTUAN**

Enkarguak hartzen dira

Txingudi Merkatal Zentroa (Alcampoko kajen parean) • Tfnoa: 943-62 00 61
San Juan Plaza, autobus geltokian • Tfnoa: 943-62 71 31 • IRUN

 **Bixente SERRANO IZKO** Irakaslea

“Navarrismo” izeneko eritasun hori



Bat: *Navarra. Historia del euskera* Jimeno Jurioren obra txit gomendagarria irakurtzean, edo-

nork ikusiko du *navarro* hitzaren aintzinako erranahia. Navarra toponimoaren (leku-izenaren) aurretik, *navarrus* etnonimoa aurkitu da historiako idazkietan. Eta, etnonimo gisa, ez zen Navarra izeneko leku bateko biztanleen izen-jentilizio tipiko bat, baizik eta ezau-gari kultural bereziak zituen gizatalde edo herri bateko kideen izena. Ezaugarri kultural hori, zein eta hizkuntza berezi batetaz, euskaraz, egiten zutela zen. Hortaz, *navarro* = *euskal*. Areago, *Navarra* toponimoa, *navarro* etnonimotik etorritako leku-izena, agertu zenean, ez zen bakarrik gaurko Nafarroa izen-

datzeko, baizik eta *navarroek*, hau da, Pirinioetatik hegoaldeko *euskaldunek*, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaikoek barne, ibiltzen zuten lurralde osoaren izendapen gisa. Hortaz ere, *Nabar-Herria* (*Navarrerria* izeneko Iruñeko auzoaren jatorria) = *Euskal-Herria*, edo, zehatzago, Pirinioetatik Hegoaldeko *Euskal Herria*.

Bi: Soziolinguistek, ia-ia irakasleok bezain argiak diren jakintsu horiek, hizkuntzen erabilera eta funtzio sozialak ikertzen dituztenek, “autogorrotu kultural” kontzeptua asmatu dute hizkuntza *gutxiagotuen* beheraldi-prozesuaren alde

bat nabarmentzeko: gain-beheraldi horretan, kanpoko edo bertze arlotako eraginaz gain –debekapenak, irakaskuntza eta komunikabideetatik bazterketa, ekonomia eta goiko klaseen pisa...–, nola dagoen alde aipagarri bat, horrelako hizkuntza bat dutenek edo izan dutenen ondorengoek barneratu dutena: beraien hizkuntzarekiko mesprexua, inferioritate-komplexua, lotsa... , alegia. Inkontziente izanik ere, nork bere buruari –bere jatorriari, bere historiari, bere izaerari– gorro-

Navarra toponimoa agertu zenean, ez zen bakarrik gaurko Nafarroa izendatzeko, baizik eta navarroek, hau da, Pirinioetatik hegoaldeko euskaldunek, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaikoek barne, ibiltzen zuten lurralde osoaren izendapen gisa.

toa izateko modu sotil baina sintomatiko bat. Eritasun sikosozial baten sintoma adierazgarria.

Hiru: Guzti hau dena lurralde honetako *navarrismoaren* harira. *Navarrismo* hau berak dioena baldin bada, *navarro* hitza haren historia kulturaletik, *euskal* etnonimotik, hots, *Euskal Herri*tik baztertu nahi badute, horra hor *navarrista* guzti horiek beren buruekiko–beren jatorri, beren historia, beren izaerarekiko– gorrotoaren menean.

Hau dugu gero *navarrismoa*: inferioritate-komplexuak sorturiko autogorrotuaren adierazpen politikoa.

 **Jon GORTARI** Oronoztik

Euskara, gurea



Lehengo aldi batean erraten zauten baztandarbaitek: “*zenbat euskara egiten den bazterretan, gure*

haur denboran ez zen horrelakorik...”. Nik baietz erran nion, gure herrixka hauetan orain baino gehiago egiten zela; orain, bietara gehiago egiten dela, hau da, erdaraz eta euskaraz. Dirrela berrogei ta hamabost-hirurogei urte, orokorrean euskara hutsean gehiago egiten zen; bakarrik, erran behar, euskara kultura bezala ez zela baloratzen. Kultura eza, aunitzez ere, gehiago zeukan euskarak. Bai, barra-barra mintzatzen zen jendea euskaraz kultur sentidurik eman gabe, HERRI baten KULTURA zela kontu eman gabe, soilik pentsatuz HERRI horren HIZKUNTZA zela. Jakina!, bertalde ere ez ziren haintzakotzat hartzeko moduko denborak, diktadura tzar haretan euskara erabat desgertzeko eginahalak egiten baitziren. Horregatik, ba, gure “analfabetismoa” euskaraz idazten eta irakurtzen ez jakitearena, alegia.

Aunitz aldiz, ejenplu eder bat bezala erran izan ohi dut, zera, mutil gazte-gaztea nintzela, Parisen, Unibertsitatean estudiasten zegoen Al-dudeko nere lehengusu propio bat, meza eman berri zuen. Belloc-eko fraidetegiko “monjea”, Agronomi-Ingenieritza estudiasten zegoelarik. Neroni ere bide ho-

rietatik nenbilen Iruña alde horretan. Egun batez idatzinon Parisera –jakina, erdaraz!–, bai eta berak erran [çtzun erdaraz, bost-sei hizkuntzen jabe baitzen ordukoz: “Harritzen zela euskaldun batek bertze euskaldun bateri hizkuntz arrotzean idazteagatik; berak “padre-madre” erratean baze kiela zer erraten zuen, bainan, ez zuela berdin somatzen bihotzean “aita-ama” erraten zuelarik bezala”. Halako ejenplu eta lotsa sartu zidalako, zin egin nuen nere burua jorratuko, hezi-

Dirrela berrogei ta hamabost-hirurogei urte, orokorrean euskara hutsean gehiago egiten zen; bakarrik, erran behar, euskara kultura bezala ez zela baloratzen. Bai, barra-barra mintzatzen zen jendea euskaraz kultur sentidurik eman gabe, HERRI baten KULTURA zela kontu eman gabe.

ko nuela, gure euskararenganako analfabetismo hura hankapetuz eta EUSKARA goi-mailan jarriz.

Tamalez, gure lehen letrak irakurtzea eta idaztea erdaraz izan ziren, tutik ez genekiela zer erraten genuen. Horrelaxe galtzen dira HERRI baten ohiturak, hizkuntza eta nortasuna: ez erakutsiz eta ez ikasiz... ahal bada, hori dena baztertuz. Orain, zorionez, badugu bertze askatasun puxka bat, ez beharbada horrenbertze korik, bainan bai, pausoka-pausoka askatasun hori gehitzen joateko, indartzen saiatzeko.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias, 98ko hilbeltzaren 19a


«Pertsona batzuk bokazioagatik etortzen dira San Antonera eta bertze batzuk tradizioz. Igandea mendian pasatzeko modu polita da».

Xixo eta Ketzu
AIESTARAN
Lesakarrak
Diario de Noticias 98-1-19

«Gertatu ez diren istripuetaz ere hitz egin behar da, zerbait oso larria gertatzeko arriskuan izan garelako maiz. Badago jendea hortxe bere burua alde batera bota behar izan duena, bestela kamioi batek irentsiko zuelako».


Florentino GOÑI
Oronozko alkate juradoa
Egin 97-1-23

- ❖ **Zer izan zaizu zailago: euskara ikastea edo hemengo bizimodura egitea?**
- ❖ Hemengo bizimodua euskararik gabe ez zen hain berezia izanen.
- ❖ **Arte lanetik bizitzen ahal da?**
- ❖ Urtean hilabete bat.
- ❖ **Ez da bizileku egokiagoa artista batentzat herri handia edo hiriburua?**
- ❖ Hiriburuan taberna gehiegi daude.
- ❖ **Zer aurkitu duzu Etxalarren, zure bizitza bertan finkatzeko?**
- ❖ Egurdiko tute partidak.
- ❖ **Eskultura edo pintura, zer maiteago?**
- ❖ Eskulturak aspertzen nauenean pintura, eta alderantziz.
- ❖ **Pintatzeko zer nahiago: paisaia edo jendea?**
- ❖ Jendez betetako paisaia.
- ❖ **Egurra landu edo harria?**
- ❖ Plastikoa eta kartoia.
- ❖ **Jende artean edo bakarrik hobeki?**
- ❖ Egunez, bakarrik. Gauetz jende artean.
- ❖ **Zaharrekin edo gazteekin?**
- ❖ Adinak ez dit inporta.
- ❖ **Negua edo uda?**
- ❖ Zalantzarik gabe, uda.
- ❖ **Otordu on bat zuretzat?**
- ❖ Ilar gorriak.


**Adrian LABADIE**

Eskultorea. ETXALAR

GRUPO  ZURICHASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

**Ostargi
Optika**
Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53
**muñeca
de Trapo****IRUN**Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27**PIKABEA**
Moliner drogerian *pinturak*
galdetu**Etxe barneko hezetasan eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

PAC dirulaguntzak eskatzeko martxoaren 13an bukatuko da epea

Nekazari eta abeltzainek eskatu dezakete dirulaguntza eskaria

TTIPI-TTAPA


Nekazal esplotazioen jabeek martxoaren 13a bitarteko epea izanen dute PAC, mendiko konpentsazio kalte-ordaina eta abeltzain sariari dagokien dirulaguntza eskari bakarra aurkezteko, Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduari jakinarazi duenez.

Gure inguruan, aretzeen sari berezia, behiak dituztenendako saria; ardi eta ahuntzak dituztenendako saria eta mendiko konpentsazio kalte-ordaina dira eskatzen ahal diren dirulaguntzak.

ARETZEENDAKO ESKARI OSAGARRIAK AZAROAREN 16A BITARTEAN

Epea bukatu ondoko 25 egunetan aurkeztu diren eskariak %1eko murriztea izanen dute, atzerapen egun bakoitzeko. Aretzeendako eskari osagarriak azaroaren 16a bitartean eskatzen ahal dira.

Eskariak eskuz nahiz



Bertze dirulaguntzen artean, aretzeendako sari berezia eskatzen ahal da martxoaren 13a bitartean

Ondikol

ordenagailuz betetzeko aukera izanen da, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduan, Nekazal Ganbaretan, kooperatibetan eta aurrezki kutxa edo banketxeetan.

DERETXOEN ESKUALDATZEA ETA ERABILPENA

Ardi, ahuntz eta behien deretxoaren eskualdatzeari dagokienez, martxoaren 13a bitartean gaztigatu ahal izanen

dira. Behien deretxoaren jakinaraztea, deretxohori eskuratu duenak sari eskaria egiten duen eguna arte egiten ahal da.

DERETXOEN GEHIENGOA ERABILI BEHARRA

Azkenik, Nafarroako Gobernuak adierazi duenez, ardi produzitzaileek bere deretxoaren %70a guttienez erabiltzera behartuta daude eta behien produzitzaileek berriaz, %90a.

Erabiltzen ez diren deretxoak erretiratuak izanen dira.

Honen inguruan, hau da, deretxoaren eskualdatzea laguntzeko eta hauek erabiltzen ez direla eta erretiratuak izan ez daitezken, erregistro berezia dago Kudeaketa Tekniko Institutuan (ITGn). Edozein produzitzaile harremanetan jar daiteke erakunde honekin, deretxoak errentan hartu, eman, saldu edo erosteko.

Mugairi inguruko errepideak mantentzeko lanak

Construcciones Mariezkurrena enpresak egingen ditu datozen hiru urtetan Mugairi inguruko errepideak modu egokian mantentzeko lanak, Jose Ignacio Palacios, Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikabideak Departamenduko kontseilariak sinatutako Foru Aginduan azaltzen denez. Aurrekontua 600 milioi pezetakoa izanen da. Oinarritzko lanen artean, horretarako espres izanen duten tresneriarekin neguan errepidea ibiltzeko moduan mantentzea egonen da.

Doneztebetik Leitزارako errepidearen zabaltzea

Leitza eta Doneztebe elkartzen dituen NA-170 errepidean, 2'4 kilometro (29 eta 31'4 km. artean) zabaltzeko eta hobetzeko proiektua onartu zuen hilteltzaren 22an Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikabide Sailak. 8 milioi pezetako aurrekontua du lan honek.

LABEZAR
© 631076 • BERA

SAROBÉ
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

Dia %
Autozerbitzua
deskontua

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 63 03 70 • BERA

Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
© 63 14 03 • BERA

Herriko historiari buruzko ikastaroa abiatu da

Erdi aroa eta XIX. mende arteko garaiak aztertuko dituzte

ASIER GOGORZA

Gure herriko iragana nolakoa izan ote zen jakinmina asetu nahian, asteazkenero Kultur Etxean elkartzen dira ikastaroan izena eman duten 22 lagunak. Jardunaldi hauek hilteltzaren 14an abiatu ziren, Andoni Esparza Lesakako Udaleko idazkariak emandako mintzaldi batekin, eta 2na orduko bertze 8 saio gehiago burutuko dituzte oraindik. Joan den astean inguru fisikoari buruz (herria eta baserrien antolaketa) aritu ziren eta atzo bertan 1857ko zentsoaren gorabeherak izan dituzte mintzagai. Hori dena Herriko Etxeko artxiboko dokumentuen fotokopietan (XIX. mendeko tartekako e-



Bi talde berezi dituzte, bata euskaraz eta bertzea gazteleraz

rroldak eta ordenantzak) oinarrituta.

Partehartzaileek erdi arotik hasi eta XIX. menderarteko ibilaldia egingen dute, beraz, orden kronologikoa segi-

tuz, eta Bidasoa Ikerketa Zentroko adituen gidaritzapean beti ere. Eramaila gisa Geografia eta Historian lizentziatua den Izaskun Abril beratarra ariko da,

Fernando Mikelarena historialaria eta Juainas Paul zubietarrarekin batera, eta ikasleek saioetan ahalik eta gehien parte hartzea da beraien helburua.

Euskarazko errotulazioa paratuko dute bidegurutzeetan

Hemendik aitzine- rat herriko auzo eta baserrien izenak euskaraz irakurri ahal izanen ditugu bidegurutzeetan, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak bultzatu duen kanpaina honen ondorioz. Duela 6 bat urte antzeko proposamen bat aurkeztu zen Bortzirietako Udale-

tan, baina gibelerat utzi zen orduan. Orain proiektua eguneratu ondotik, Bera, Igantzi, Etxalar eta Arantzako Udalek onetsi egin dute. Cederna-Garalur Elkarteak milioi bateko subentzioa eskaini du, eta Nafarroako Gobernuari ere galdegin diote bertze dirulaguntza bat.



Moldatze lanetan

Alco paretik Alkaia-gako poligonora doaien bide zatia asfaltatzen ari dira egunotan, behar ederra zuen eta. Hala ere, zenbait langilek beren arrenkura agertu dute erdiko bidea bakarrik moldatuko dutelako, zenbait fabriketako sarrerak bazter utziz.

Arg.: Karnele

FOTO GOIKO

Altzate 26
Tel.-Fax: 630515
BERA

ZALAIN
J A T E T X E A

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

GOZOTEGI-JAIONE


Altzate, 19 • 630786 • BERA

Herriko bidaxka eta baliabide turistikoaren plana aurkeztu da

Ia 12 milioi pezeta gosta da Orbel Haizea enpresak egindako lana

AITOR AROZENA

Larunbat honetan burutu da Herriko Etxean Lesakako bidaxka eta baliabide turistikoaren planaren aurkezpen ofiziala. Bertan Udaleko ordezkariak, Nafarroako Gobernuak, turismoarekin zerikusia duten erakunde publikoetakoak eta lana gauzatu duen Orbel Haizea enpresakoak izan ziren. Mendi bidaxkak seinalizatu eta batzuk mol-



Hiru hizkuntzatan banatuko den liburuxkaren azala. Hogei durtan salgai egonen da.

datu, Frainen inguruko mendiak erakusten dituen mahai panoramikoak ezarri eta Agiñan, trikuharriak txukundu eta panel batean aurrehistoriako informazioa paratu izan dira egindako lan batzuk. Lana aurkezteaz gain, argitaratutako mapak -herri inguruan, oinez, bizikletaz nahiz zaldiz egin daitezken mendi ibilaldi ageri dira- eta euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez karrika-

ratuko den «Lesakako ibilbide historikoa» liburuxka ezagutzera eman zituzten.

Lanaren aurrekontu osoa 12 milioi pezetakoa zen. Hori finantzatzeko 6 milioi pezeta dirulaguntza hitz emana zegoen Europatik, Resider-II planaren barnean eta Nafarroako Gobernuak 5.020.000 pezeta dirulaguntza eman du. Gastua, azkenean, 11.948.000 pezetakoa izan omen da.

Personaia

«Ordu laurden batean egin nuen Kilometroak-eko logotipoa»

Eloy Lopez, 23 urteko gazteak Kilometroak 98 Gipuzkoako ikastolen bestarako logotipo lehiketa irabazi du. Halere, ez dugu bere marrazkia ikusiko kamiseta, pegata eta salgai paratuko diren bertze gauzetan, antolatzailerek bertze finalista baten lana plazaratzea erabaki baitute. «Hori oinarrietan heldu zen, baina gaizki iruditu zait bature ez abisatzea eta komunikabideen bidez jakitea. Hasieran inprimatuta ikusiko nuela uste nuen eta enteratu nintzenean amorrux pixko bat eman zidan. Akaso nafarra naizelakoz aldatu izanen dute...» dio marrazkilarik gazteak. Halere, lehendabiziko sariaren 25.000 pezetak Donostian diseinu grafiko lizentziatura akautzeko puntuan dagoen eta Onin diseinu enpresan lan egiten duen lesakarrantzat izan ziren. Marrazkia «ximplea eta originala da» Eloyen ustez eta «lehiaketaren oinarriak azken egunean jaso nituen, ordu laurden batean

flash

Jabier Muguruzak

kontzertua eskainiko du ortziralean, urtarrilak 30, gaueko 10,30etatik aitzinera Kattun. Kantaldia, Bortzirietako Euskaltegiak (IKA) otsailaren 13a bitarte luzatuko duen matrikulazio kanpainaren barnean dago.

Andra Mari erresidentziako

sukaldaria izateko lehiaketara sei lagun aurkeztu dira eta horietatik bakarra utzi dute kanpoan. Bertze bortzek datorren asteazkenean, otsailak 4, goizeko 9etatik aitzinera egin beharko dituzte probak.



San Anton Eguna

Larunbatean zenbait lagun Endara auzora agertu baziren ere, igandean ehundaka izan ziren San Anton eguna besta giroan ospatzera joan zirenak. Oinez, zaldiz, bizikletaz nahiz kotxez -errepidearen bi aldetan pilatutakoak ikustea bertzerik ez zegoen- hurbildu, meza aditu, errokilak erosi, txistorra eta taloa jan... Ohitura zaharrei eusteko egun egokia izan zen. Arratsaldean Egan taldea aritu zen herriko Plaza Zaharrean. Argazkia: GOIKO



Eloy LOPEZ

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 63 70 27 LESACA

INAXIO JANARIDENDA

 Igandetan 9etatik 13etara irekia
 ASTERO eskeintza bereziak
 Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESACA

IRU BIDE

 ERRETEGIJA
 Tfnoa: 637127
 LESACA

KATTU
 ostatu - jatetxea
 Plater konbinatuak eta menuak
 © 627573 • LESACA

ttiipi-ttapa ren

zerbitzu komertzialak

LAN KOMERTZIALAK

Kartelak, boletoak, fakturak, bisita txartelak, aldizkariak, egutegiak, liburuak, katalogoak, kartazalak eta paperak, buzoiratze publikitate orriak, inprimakiak...

FOILETOAK

Bi orrikoak, hiru orrikoak, koloretan eginak, zuribeltzean, offset-ean edo fotokopietan ...



KARTELAK

Neurri, kolore eta paper desberdinetan



ALDIZKARIAK

Komeni zaizun neurri eta kopuruan, zure gustora diseinatua



INPRIMAKIAK

Kartazalak, buzoiratze paperak, egutegiak, errekordeforioak



TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK zerbitzu egoki eta profesionala eskaini nahi die bere lagun eta bezeroei. Horretarako sortu du **KULTURKARI**, zuk behar duzuna momentu batean egiteko, zure gustora diseinatua eta merke. Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!



631188



KULTURKARI

ETXALAR

Aparkalekurako Martikoneko baratza erostea pentsatu du Udalak

Horrelako gehiago ere beharko da, noski

PELLO APEZETXEA

Autoak uzteko tokia bilatzen segitzen du Udalak, eta oraingoan zerbait lortuko duela iduri du. Antza denez, Etxeberriberea eta Intzea arteko baratza salteko prest daude, eta aparkaleku bihurtuko da. Itxuraz, behinik behin, ez da toki txarra. Gero ikusi behar.

Larraburuko partxis txapelketa hasi da

Igande arratsaldeko ordu batzuz dibertitzeko partxisaz baliatzen direnak ere, hasi dira nor baino nor gehiagokako txapelketa horretan. Zortzi bikote.

Larraburuko mus txapelketaren sariak

Urtarrilaren 11n jokatuko ziren Larraburuko mus txapelketaren finalak, hamasei bikotek parte hartutako txapelketa, eta urtarrilaren 18an banatu zitzaizkien irabazleei sariak. Lehen saria eta txapela, Behekozubiko Joxe Mari



Behkozubiko Joxe Mari eta Urtzelaiko Santiagok irabazi zieten finalean Armitzeko Santiagori eta Aldalurko Bordako Juaneri. Argazkian finalistak eta gainerako saridunak ageri dira Argazkia: Pello

eta Urtzelaiko Santiagori. Armitzeko Santiagori eta Aldalurko Bordako Juaneri bigarren saria. Hirugarena, Larrabetako Leonek eta Guantxegaraiko Frantxixkuk eraman dute. Laugarrena, berriz, Zabalteko Luisek eta Maineko Benitok. Ixtanteko, bigarren txapelketa hasiko da, urdaiazpiko baina saritzat izanen due-

na. Hiru urdaiazpiko jokatuko dira, baina hirugarrena den artean jateko. Akautu berri den txapelketan bezala, hamasei bikotek hartuko du parte bigarren hone-tan ere.

Etxeetan zenbakiak pintatu dituzte

Xuriak, gorriak, edo berdeak, segun eta ze auzotan, etxe paretetan

zenbakiak pintatuak ikusten ahal ditugu hemendik aintzinerara. Zartadura xurian, harri gainean, ataburuan, etxe bazterrean, denetik ageri da.

Hiru ostatutik bi itxiak

Ez betiko, noski, eta ez luzerako ere, ustez. Baina plaza inguruko bi ostatuek atek itxiak di-

tuzte, arrazoi ezberdinegatik. Horrela, osatu bakarria gelditzen da irekia egun hauetan. Hori, astegunez. Asteburuetan, laugarrenak ere irekitzen baitu.

Herriko Etxe zaharreko lanak bukatu dira

Momentukoak. Barrenean oraindik ere egitekoak baitira. Etxearen egiturako pilareak sendotu eta teilatua arruntean berritu dute, zuraje guzia tartean. Eta kanpoko lau aldeak. Txukun eta polita gelditu da, etxeak merezi duen bezala.

Elkarte berri bat sortu da

Bildu eta otordu batzuk egiteko bi elkarte badira lehen; hain zuzen ere, emakumeentzat bat eta gizasemeentzat bertzea. Oraingoan, bai emaztekiek eta bai gizonezkoek izanen dute kide edo sozio izateko eskubidea eta aukera. Salaberrian izanen du elkarteak bere egoitza eta biltokia.

ETXALARKO HERRIKO OSTATUA

 635290
ETXALAR

Kixkur
Ileapaindegia
 Tel: 63 74 29
 Bittiriako Plaza, 3 behe
LESAKA


Aranguren
 Aroztegi mekanikoa
 Tel.-Fax: (948) 63 72 58
 Tel.mug.: 908 -77 51 85
 Otsango industrialdea
 31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara


BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
 Bereau etxea • LESAKA
 Tel eta Faxes: (948) 63 72 66

IGANTZI



Frontoi zaharra ezker pareta galduta

Lehengo alean ez genuen botatako frontoiaren argazkirik ateratzerik izan. Ezker pareta bota, baratze aldera zabaldu beharrekoa prestatu eta Alsoluzeneko sarrera berriko lur kentzea segituan egin zituzten, baina orain lanak gelditu xamarrak daude. Dena den, uda bitarteko epea omen du enpresak frontoia akautua uzteko. Argazkiak: OSKAR

Mus eta partxis lehiaketa Biltokin

Iaz baino bikote guttiagorekin hasi da neguro Biltokik antolatzen duen mus eta partxis lehiaketa. Bazuen, nonbait, joan den urtekoak bertze xaltzarik, oraingoan hamar bikote musean eta hameka partxisen izanen baitira. Rosa eta Guantxeri partxisean eta Anizeto eta Emiliori musean iazko txapela kentzen saiatu beharko dute partehar-tzaileek.

Errotulazio proiektua eta ttipi-ttapa telebistaren alde

Euskararekin zerikusi handia duten bi proiekturi baimena eman zien udalbatzak azkeneko plenoan. Alde batetik, Euskara Mankomunidadeak aurkeztutako bidegurutze eta baserrien errotulazioari buruzko proiektua onartu zuen eta, bertze aldetik, TTIPI-TTAPAREN telebistaren proiektuari ere bere oneritzia eta laguntza eskaini zion.

Frain aldean eginen dute eskolako haurrek zuhaitz landaketa

Martxan dago Biltokin mus eta partxis lehiaketa

OSKAR TXOPERENA

Eguraldiak pixka bat laguntzen badu, otsailaren 5ean, arratsaldeko 2,30etan hasiko dute eskolako haurrek Frain mendian eginen

duten zuhaitz landaketa. Ez da lan hau aintzineria eramateko egingen den lehen saiakera, baina irudi du oraingotik gauzatuko dela. Prest daude lozan aldeko mindingean 50 haritz ameri-

kano eta, kozkorak izanik, lan handi xamarrak emanen dute landatzeko orduan.

HELDUEN LAGUNTZA

Helduen laguntza nahitanahiezkoa ikus-

ten denez, gonbidapena zabaldu zaie eskolatik gurasoei, ahalik eta gehien joan daitezen lan horretan parte hartzera. Tresna aldetik ere ez dago konplikaziorik, ailtzur eder bat aski baita.

BEKO ERROIA
Lore eta landareak
Frain auzoa • ☎ 63 78 26
LESAKA

BERRIZTUN S.L.
LURDIN MULLIONES MECANICAS
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ☎ 627572 • Faxa: 637313

J. RAMOS
Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut
☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESAKA

TXIRULA
Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

KOXKILA OSTATUA
Zarandia, 4 - LESAKA

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ☎ 63 74 11 • Faxa: 63 73 13

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8. LESAKA

ANA janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 63 79 44
LESAKA

ARANTZA

Gazte Asanbladak antolatutako ekitaldiak burutu dira asteburu honetan

Gazte Astea izenburupean, diapositibak eman eta murala egin dute

ELIXABET ETA GARBINE

Pasa den asteburuan, urtarrilaren 23tik 25era, Gazte Asanbladak Gazte Astea ospatu zuen. Bertan izan ziren ekitaldien artean, larunbat goizean, Igantziko bigegurutzean egindako murala, «Presoak kalea» leloarekin aipatuko dugu. Larunbat gauetz, berriz, Ekaitza elkartean afaria izan zuten. Afalondoren, Patxi San Juanek diapositiba emanaldia eskaini zuen. Patxi San Juan, Arantzako eskolan irakasle egon zen duela urte batzuk eta garai hartan haurrak agertzen zituzten diapositibak ikusi ahal izan ziren. Bateria baino gehiagori oroitzen ederrak etorri zitzaizkion burura, baina pasatutako garai guztiak hobeak izan direla ez dugu erranen.



Gazteak eskiatzen Luz Ardiden mendian

Luz-Ardidenerako bidaia ere ederki atera zitzaizen Gazte Asanbladakoei. Denetara 36 gazte animatu ziren asteburu eskiatzen pasatzera.

Argazkiak: Garbiñe



flash

❖ **Bake epailerako proposamenak**
Herriko Epaitegiko Bake Epaille kargua betetzeko eskariak udal idazkaritzan aurkezten ahal dira otsailaren 16ko arratsaldeko 3ak arte. Lan honetan

❖ **DBHko ikasleak ere Isaban eskiatzen izan dira**

Arantzako eskolako neska-mutikoak Eguberrietako oporrrak pasatuta hurrengo astea Isaban eskiatzen pasatu zuten. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hamasei ikasle joan ziren irakasle batekin eta, noski, hagitx ongi pasatu zuten.

ANTZUZELAI
S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiak
Angeluak	Erlatzak
Orna antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Matrazkiak
Pilareak	

Ahazkideak *Muzoiak*
Zuhar gortzak *Txupinak*

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ALBERGIA
JATETXEA

ATERPE
ALBERGIA

☎ 634179
ARANTZA

BEREAU
jaketxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzan
Tfnoa: 62 75 09 - **LESACA**

EROSLE
LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 637503 • **LESACA**

ZIALDO OSTATUA

LESACA

Larrakaizko tunela egiteko 54.000 m²ren jabetza kenduko du Nafarroako Gobernuak

Lanak aurten bertan hasteko intentzioa du Herrilan Sailak

TTIPI-TTAPA

N-121-A errepidean Larrakaizko tunela egiteko proiektu tekniko onartu zuen Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikabide Sailak, abenduaren 19ko Foru Agindu baten bidez.

Eraberean, proiektu honek hartzen dituen lur-eremu eta ondasunen desjabetze edo expropiazio espedientea zabaltzea erabaki zuen Jose Ignacio Palacios kontseilariak.

54.100 METRO DESJABETUKO DIRA

Guzira, 54.100 metro karraturen jabetza kenduko du Nafarroako Gobernuak. 22.037 m² Sunbillako herri-lurak dira eta gainerakoak partikularren esku daude, gaur egun: 12.767 metro Francisco Graziare-



Larrakaizko tunela, 1998-2005 urtetarako Nafarroako Gobernuak prestatutako Errepideen Plan Zuzentzailearen barnean dago. Aurten bertan hasteko asmoa dute. Gero etorriko dira inaugurazio eta bedeinkazioak.

narenak dira; 7.100 metro Francisco Arretxearenak; 6.006 metro Catalina Caballerorenak; 3.360 metro Francisco Jorajuriarenak; 1.830 metro M^a Josefa Jorajuriarenak eta 940

metro Ignacio Ganboarenak. Honetaz gain, lanek irauten duten bitartean zabortegi bezala erabiltzeko Sunbillako herri-lurretako 100.000 metro inguru hartuko dituzte, baita Igantziko

herri-lurretatik bertze 25.000 metro ere. Proiektu honen inguruan alegazioak aurkezteko hogeitun eguneko epea utzi du Nafarroako Gobernuak.

Jakina denez, lanak

N-121-A errepidearen 59'5 eta 64. kilometroaren bitartean egingen dira.

Nafarroako Gobernuak 1998-2005 urte tartetarako prestatutako Errepideen Plan Zuzentzailearen arabera, proiektu hau Belaten barna Iruña eta Iparraldea lotzeko interes orokorreko sarearen barnean kokatuta dago. Lanak aurten bertan hasteko intentzioa dute.

Iñauteriei adio

Besta giroan joan da asteburua, aurtengo iñauteriak ospatu baitira. Beti bezala, igandea izan da bisitari gehien erakarri duen eguna. Denbora falta dela eta, ale honetan ez dugu irudirik azaltzerik, baina hurrengoan izanen duzue egun hauetan gertatutakoaren berri zehatzagoa.

ttipi-ttapa internet
<http://www.encomix.es/ttppi-ttapa>
 E-mail: ttipi@encomix.es

Elizatz
ERLOJUTEGI BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
 Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
 Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
 451 541
 Faxa: 450 334
DONEZTEBE

ARIN ASEGURUAK

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

Parrokia 21
 Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE

DONEZTEBE

137 milioi pezetako inbertsioa egingen du Nafarroako Gobernuak zenbait lanetan

1997-99 Hirurteko Planaren barnean onartu dira


TXEMA ALDABE

Udalak egin nahi di-tuen lau lanetarako dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuko Leku Administrazio Departamenduak, 1997-99 Hirurteko Planaren barnean. Guztira, 137 milioi pezetatik goiti izanen da Plan honen barnean Iruñetik bide-ratuko den dirutza.

Lanetako bat, behe-tentsioko argi-ingar sarearen berritzea izanen da. Udalak 36.303.860 pezetako aurrekontua aurkeztu du lan honetarako eta Nafarroako Gobernuak 19.509.694 pezeta emanen ditu.

Herriguneko argie-tan ere inbertsioa egingen da, Hirurteko Planaren barnean. Horretarako 17.385.458 pezetako inbertsioa onartu du Nafarroako Gobernuak, 23.576.699 pezetako aurrekontu batetik.

Eraberean, herriko zolaberritze lanak sartu dira inbertsioetan. Aurrekontuaren arabera (92.157.529 pezeta) hau izanen da hirurteko lanik haundiena eta



Saneamendu eta ur-hornidura lanetarako berrogeitamar milioiko aurrekontua izanen da.

Artxiboa

Iruñetik 67.956.962 pezetako laguntza bideratuko dute.

Azkenik, Hirurteko Planean sartu da herriguneko saneamendu eta ur-hornidura sareen be-

rritzea. Lan honen aurrekontua 50.660.911 pezetakoa da eta Gobernuko subentzioa, berri-z, 32.204.617 pezetakoa. Ezin erran, gaizki geldituko garenik.

Erreka eskubaloi taldeak ongi hasi du 2. fasea

Erreka eskubaloi talde nagusia hagitz ongi ari da, oraingoz, hasi berria den bigarren fase honetan. Horrela jotzen segituz gero, aukera haundiak izanen ditu lehendabiziko postuak gelditzeko eta mailaz igotzea ahalbideratuko duen sektorean jotzeko.

Bigarren fase honetan, Nafarroako borts talde eta Logroñoko bat ari dira: Nafarroako San Antonio, Burlata, Nafarroako Unibertsitatea, Tafalla eta Erreka taldeak eta Logroñoko Siete Valles, hain zuzen ere. Denetara, talde bakoitzak hamar partidu jokatuko beharko ditu, borts etxean eta bertze hainbertze kanpoan. Hau idazterakoan, Errekak hiru norgehiagoka jokatuko ditu, bi irabaziz eta bat berdinduz (hau, beti zaila den Burlataren aurka, Burlatan bertan gainera).

flash

Zinema
'Deabruaren itzala' edo 'La sombra del diablo' pelikula bota-tako da Doneztebeko zinean otsailaren 7an eta 8an, betiko orduetan.

Euskaraoe grabazioa otsailaren 18an
asteazken arratsaldean, Bear-Zana frontoian egingen dute. Bertan izanen dira ETBkoak eta grabazioa gero hantxe ikusi ahal izanen da. Dena den, giroa sortzeko goizez etorriko dira eskolara jokoak egitera. Grabazioa dela eta, nolabaiteko prestaketa egingen dute eskolako ikasleek aintzinetik. Horretarako, hilteltzaren 30ean, ortziralean, otsailaren 10ean, asteartean eta otsailaren 16an, astelehenean, elkartuko dira 5. eta 6. mailakoak eta DBHkoak, saio txukun bat egin asmoz.

BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

SANTAMARIA
Jatetxea
Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ETXANDI
TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

MALERREKA

Euskararen erabilerari buruzko datuak plazaratzen hasi dira

Donezteben adinekoak dira euskara guttien erabiltzen dutenak

TXEMA ALDABE

Karrikan euskara zenbat erabiltzen den neurtu zen joan den urteko urriarloan, herriz herri. Euskara Zerbiztuak txosten zehatza go bat argitaratzeko asmoa badu ere, hasierako emaitzek ezusteko haundi xamarrak ekarri dituzte. Donezteben, adibidez, euskara guttien erabiltzen dutenak adinekoak dira, % 25k bakarrik (lautik batek, beraz). Ondoren helduak datoz (%29) eta gehien erabiltzen dutenak haurrak dira, erdiak baino gehixeagok (%53).

Banaz bertze, Doneztebeko jendearen %37k erabiltzen du euskara karrikan, neurketa egin zenean behinpein.

Beti uste izan dugu adinekoek euskara badakitela, baina erabiltzeko orduan erdera erabiltzen dute gehienbat.



Aurtizko ehiztariek hiru basurde bota dituzte

Aurtizko ehiztariek hiru basurde hil zituzten joan den urte hondar aldera. Hiruak hirutan hogeitamar eta lautan hogeiki kilo artekoak ziren.

Aizkol apostua bertan behera

Patxi Mindegia eta Erasun aizkolarien arteko apostua bertan behera gelditu da.

Hasieran, Patxi Mindegia egindako desafioa Erasunek onartu bazuen ere, ondoren gibelera bota da. Apostua martxoaren 15ean egi-

tekoa zen, baina Patxi hilabete terdi beranduago egitea eskatu zion eta Erasunek ez zuen onartu. Beraz, eta oraingoz ez da aposturik.

Donamaria eta Oieregiko lanetarako inbertsioa onartu dute Iruñetik

Bakoitzaren azaleraren arabera subentzioa jasoko dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Leku Administrazio Departamenduak Donamariako Herriko Etxeak zenbait bide moldatzeko aurkeztutako lanak 1997-99 Hirurteko Planaren barnean sartu ditu. Zehazki, Arkaitz-gaina, Sen-

berroa, Mitxeo Berria eta Errekarte-Zanibarreko bideak moldatzeko 17.860.831 pezetako aurrekontua aurkeztu zuen Donamariako udalak eta Iruñetik 11.680.576 pezetako dirulaguntza onartu dute.

Oieregiko kontzejuren kasuan, aurretik jakin ezin den gertaka-

ri edo ezinbesteko egoera dela eta 1996ko ekitaldiko Leku Azpiegitura Planean sartu du Nafarroako Gobernuak saneamendu sare berria. Aurrekontu osoa 28.889.841 pezetakoa izanik, Nafarroako Gobernuak subentzioa 19.277.585 pezetakoa da. Proiektu horretan

dagoeneko 1.432.551 pezeta ordainduta dauden, 2.029.838 pezeta Oieregiko kontzejuek berak dituen baliabideen bidez lortuko da eta gainerakoa, Nafarroako Gobernuaren baimeaz eskatu beharreko maileru edo kreditu baten bidez eskuratuko litzaiteke.

flash

Bertizaranako aurtengo udal kontribuzioak neurri hauen arabera ordaindu beharko dira: Hiri kontribuzioa %0,27; landa lurrena %0,56 eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga %3.

Aurtizko pilota txapelketa

Lehen aldiz antolatutako den Aurtizko eskuz banakako pilota txapelketaren finala otsailaren lehen jokatuko da, eguerdiko 12etan. Txapelketa 17 lagunek hasi zuten eta 8 sailkatu ziren bigarren fasean aritzeko, bi taldeetan banatuak: Ordoki (Doneztebe); Manueltxo, Patziku eta Babaze (Zubietan); Matxitene, Mujika, Otxoteko eta Makatzene (Lesaka). Talde bakoitzeko lehendabizikoek jokatuko dute finala. Dagoeneko Patxi Ordoki doneztebarrak lortu du finala aritzeko txartela. Arierioa, Lesakako Makatzene edo Mujika izanen da. Iganeko finala baino lehen, 3. eta 4. posturako partidua jokatuko da. Txapelketa honi merezi duen akabaila emateko bazkari eder bat egingen da Aurtizko Ostatuan.

Iturengo

Ibintza kultur taldeak bilera izanen du otsailaren 6an, gaueko 10,30etatik aitzinera Herriko Etxeko ganbaran. Aurtengo plangintza zehazteko asmoa dute batzar honetan, beraz, agertu zaitezte.

Langarrak antolatutako ikastaroetan izena emateko epea akitzear

Masaia ikastaroan parte hartzera jende aunitz animatu da

TTIPI-TTAPA

Langarrak aurren antolatuta dituen ikasturtearen artean berrikuntza nabaria izanen da aurren. Ustekabean bertze bat egiteko taldea atera baita, yogakoa, hain zuzen ere, eta otsailetik aintzinerara emanen da. Oraindik ez da jakiterik zenbat orduko ikastaroa izanen den, ezta bere prezioa ere, hori izena ematen duten kopuruaren arabera zehaztuko baita. Beraz, interesatua egonez gero, otsailaren 6a baino lehen bi telefono hauetako batera deitu behar da: 451746 (Esther) edo 450441 (Aintzane).

Ikasturte honetan eginen diren bertze ikastaroak honako hauek dira: Sendabelarrak, maiatzetik ekainera, hogeitortzi orduz; antzerkigintza (hilbeltzetik ekainera, berrogei orduz);



Bertsolaritza ikastaroan izena emateko epea akitu da. Ikastaroa hilbeltza eta otsailean zehar emanen da.

Artxiboa

bertsolaritza, hilbeltza eta otsailean, hamasei orduz; masaia, hilbeltzetik martxora, hamasei orduz eta txalaparta, otsailetik martxora, zortzi orduz.

Langarra taldekoek,

ohar baten bidez jakinarazi dutenez, masaia, bertsolaritza eta antzerkigintza izena emateko epea akitua da, dagoeneko. Eraberean, gogorazi nahi dute ikastaro hauek ez daudela

Malerrekako bizilagunei soilik zuzenduta. Beraz, eskualde honetatik kanpo bizi eta bakarren batean interesatua egonez gero, deitu ezazu arestian aipatutako telefonoetara.

Ingurugiro Sailaren ustez, garbiketek ez dute kalterik eragin parkean

Yolanda Barcina, Nafarroako Gobernuko kontseilariak adierazi duenez, azken ekaitzetan izandako haize boladak botatako zuhaitzak Bertizko Parke Naturaletik kentzeak ez du inolako kalterik eragin bertan, natura babesteko indarrean dauden arau guztiak errespetatu direlako.

Hauxe erantzun zion Barcinak PSOEko parlamentaria den Jose Javier Sanchez Turriasi. Kontseilariaren arabera, 1997. urte hasieran eroritako zuhaitzak kentzea, guzira 6'55 hektarea neurtzen zuten eremu batean, Parkeko Gestio eta Erabilte planak agintzen duenari segituz egin zen. Suspiro, Aiansoro, Agote, Kisuarieta, Amezi eta Arbera inguruetan egindako lan hauek Uharteko Babiur S.L. enpresak gauzatu zituen, 1.200.000 pezetaren truke.

Herrietako mediku kontsultendako iazko dirulaguntzak onetsi ditu Osasunbideak

Bakoitzaren azaleraren arabera subentzioa jasoko dute

TTIPI-TTAPA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak onetsi ditu herrietako mediku kontsultak euren lanean aritzeko dirulaguntzak. Nafarroa osoko kontsultategiek ia 85 milioi pezeta jasoko dituzte. Laguntza hauek bortz

klasetakoak dira, beti ere kontsulta bakoitzaren azaleraren arabera.

Malerrekari dago-kionez honako hauek dira dirulaguntzak:

- **Elgorriagako** kontsulta (35 m²): 187.705 pezeta.
- **Eratsungoa** (46 m²): 246.698 pezeta.
- **Ezkurrakoa** (37

m²): 198.431 pezeta.

- **Iturengoa** (65 m²): 371.150 pezeta.
- **Beintza-Labaiengoa** (47 m²): 268.370 pezeta.
- **Saldiaskoa** (35 m²): 187.705 pezeta.
- **Sunbillakoa** (45 m²): 236.950 pezeta.
- **Urritzkoa** (37 m²): 198.431 pezeta.



Saldiaskoa da kontsultarik txikiena

GOIZUETA

Santa eskean hemen ere

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera, kalera aterako dira musika eskolakoak

ESTEBAN AROZENA

Gure inguruko hainbat tokitan Santa Ageda bezperako eskeak tradizio handia baldin badu ere, hemen ezezaguna da herritar askorentzat, bertako zaharrenak ere ez baitira oroitzen Goizuetan sekula santan ohitura hori izan denik. Dena den, hemen ere tradizionala bihurtu liteke laister, otsailaren 4rako, Santa Ageda bezperarako, eskolako irakasle eta ikasleek antolatutako ekimenak ondorengo urtetan jarraipenik izaten baldin badu behintzat.

Arratsaldeko 6etan aterako da plazatik Musika Eskolako ikasleek eta nahi duten herritar guzietan osatutako taldea.

Txistulari bandaren soinuz lagundurik herri osoa zeharkatuko dute, makilak eskuetan harturik eta propio kalejira honetarako prestatutako bertsoak kantatuz.

Udalak partaide guziei Umore Onan eskainiko dien afari-bereendurekin bukaera emanen zaio Santa eskearen lehenengo edizio honi.

Pilota eskolaren funtzionamendua arautu da

Herriko pilota eskolaren funtzionamendua paregabekoa izan dela ez du inork zalantzan jartzen—irabazitako txapel ugariak horren lekuko—. Halere, ikasleek guraso batzuek, irakasleek eta Umore Onak



Hainbat garaipen lortu baditu ere, pilota eskolaren funtzionamendua berritu behar dela erabaki du Umore Ona elkarteak Artxiboa

(elkarte honen esku dago pilota eskola) gauzak berritzeko garaia heldu dela pentsatu dute, eta horretarako, batez ere eskolaren lana hobetu asmoz eta monitorean egin beharra nolabait duindu nahian egunean eguneko funtzionamendurako arauak jarri dituzte indarrean.

Hemendik aurrera hilean 1.500 pezeta ordaindu beharko ditu ikasle bakoitzak. Kuota

honen truke, materiala, frontoia eta irakaslea izanen dute. Aipagarria da araua hauetan monitorean ematen zaion ardura, garbi uzten baita klase ordutan frontoian aginduko duen bakarra bera izan dela, bai klaseak nahi dituen bezala antolatuz bai eskolak parte hartuko duen torneoetan zeinek jokatuiko duen erabakiz. Dena den, ahal den neurrian, gurasoen esku egonen da neska-mutikoak txapelketetara eramateko lana.

Etorkizunari ere begiratu zaio araudi hau egiterakoan. Honela, beste elkarte edo enpresen batek bereganatu nahiko balu hemengo pilotariaren bat, kontratuaren negoziaketetan parte hartzeko eskubidea edukiko luke eskolak, formazio kontzeptuan zer edo zer kobratzeko, baina beti pilotariaren kaltetan izan ez dela ziurtatuz.

ARESO

Karnabalak, batzuk ospatuak besteak ospatu beharrak

JUANA M^a SAIZAR

Eguberriak pasatu ordurako, festa giroan hasiak gara urteari behar bezalako hasiera emanez.

Hilbeltzaren 16tik 18ra ospatu ziren Karnabalak, etxez etxeko es-

kearekin, plazan musikarekin, afariak eta ondoren dantzaldiak. Ekitaldi hauek Pake-toiki elkarterako goiko solairuan burutu ziren, hau alokatu baitzuten bost bazkidek eta Lagun-Arteko taldean sartuta daudenek. Beti bezala,

umeak eta gaztetxoak izan dira gehien moztu direnak

Hilbeltzaren 30, 31 eta otsailaren lehen berriro ospatuko dira Karnabalak. Egun hauek honetarako ere ekitaldi berdintsuekin antolatu dira eta oraingoan Larrea

Beti bezala gaztetxoak izan dira gehien moztu direnak. Argazkian, eskolako neska-mutikoak Goenkalekoetaz moztuak

elkartean bilduko dira Lagun-Artekoak.

Prezioen igoera

Ura, zaborra eta sa-neamenduen prezioa

igoko da aurten, udal batzarrean onartu zenez. 1996 eta 97ko Kontsumorako Prezioen Indizea (IPC) igoko dute aurten.



Hirurogeita zortzi lagunek parte hartu zuten Leitza-Zuparrobi-Ezkurra mendi ibilaldian

Landako industrialdean argindarra sartzeko lehiaketa zabaldu du Udalak

JOSEBA AZPIROZ

Hirurogeitazortzi lagunek hartu zuten parte Aurrera Kirol elkarteak antolatutako Leitza-Zuparrobi-Ezkurra mendi ibilaldian. Adin guztietako jendea (gazteena hamar urtekoa eta zaharrena hirurogeita...) bildu zen, umore ezin hobean. Eguraldia ere ateri samar. Idiazabalengosaldu ondoren, Ezkurrera ailegatutakoan bertan bazkaldu zuten gehienek.



Hainbat lagunek parte hartu zuten Leitza eta Ezkurra artean Aurrera Kirol elkarteak antolatutako mendi ibilaldian

Artxiboa

Emakumeen garapenerako ikastaroak

Udalak adierazi duenez, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren bidez egiten diren "Emakumeen garapenerako" ikastaroak bideratzen saiatuko da. Dirulaguntza horiek lortzeko deialdia zabaldu denez, ikastaroren bat antolatu nahi du-

nak, lehenbailehen honen memoria aurkeztu beharko du Udal Idazkaritzan. Memorian, ikastaroaren iraupena, ordu kopurua, aurrekontua, monitorearen izen-abizenak, soldata eta bestelako kontuak zehaztu beharko dira.

Landako industrialdean argindarra sartzeko lehiaketa

Landako industrialdeko elektrifikazio lanak egiteko lehiaketa publikoa zabaldu du udalak. Proposamenak otsailaren 1eko eguer-

diko 12ak baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxean eta ordubete beranduago zabalduko dira. Lanen aurrekontua 15.519.275 pezetakoa da eta behin adjudikazioa eginez gero, hiru hilabeteko epea izanen da lana bukatzeko.

Elikagaien maneatzailerik agiria ateratzeko azterketa martxoaren 27an

Martxoaren 27an, ostirala, goizeko 8,30etan, elikagaien maneatzailerik agiria ateratzeko azterketak egingen dira Udaletxeko lehenengo solairuko gelan. Nortasun Agiria eta, izanez gero, zaharkitutako elikagaien ma-

neatzailerik agiria aurkeztu behar dira. Agiria ateratzeko frogetan parte hartzeko, Osasun Etxean izena eman behar da. Agiri hau janariarekin kontaktu zuzena duten pertsona guztiek beharrezkoa dute.

Futbol-zelaia egiteko lurak espropiatuko ditu udalak

Futbol zelaia egiteko Udalak erosi nahi dituen lur-eremuen jabeekin akordioak lortu ez duenez, derrigorrezko desjabetzearen espedientea martxan jartzea erabaki zuen. Horren ondorioz, Manuela Zabaleta Aierdiri 1.920 metro karratu eta Jose Zabaleta Olaskoagari 5.995 metro karratu espropiatuko dizkiete.

flash

❖ **Herri-lurren eskualdatzea**
Sorobarrengo sarre-
ra inguruan herriak
duen 3.850 m²ko lur-
eremua Miguel Su-
kunza Zabaletari
emanen dio. Honek,
trukean Altzate in-
guruan dituen bertze
3.850 m² emanen di-
tu herri lurrentzako.

❖ **Santa Ageda bezpera**
Otsailaren 4a, Santa
Ageda bezpera dugu
eta urtero bezala,
Kultur taldeak anto-
latuta, arratsaldeko
7etan, kalez kale kan-
tari ibiliko gara, es-
kutan makila dugu-
la, trikitilariekin ba-
tera. Arratsaldeko
goxoa dastatzeko au-
kera ere izanen du-
gu, noski.

❖ **Igerilekuetako lanak**
Hirugarren lehiaketa
egin ondoren, ige-
rilekuetako lanak
*Construcciones Pa-
gozelai Goizabal* en-
presari adjudikatu
dizkio Udalak, 30 mi-
lioitan. Nafarroako
Gobernuak behartu
zuen Udala obra
hauek egitera, ireki-
tzeko baimena eman
ahal izateko.

 Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!

Basa Kabi

Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

Inaxio AZPIROZ NOAIN 'ALTZATE'

Eraikuntza eta berrikuntzak

Sukalde eta bainu geletan berezitasuna

Azpirozenea etxea - Gorritaran Auzoa
LEITZA • ☎ 510148

ttipi-ttapa internet

<http://www.encomix.es/ttppi-ttapa>
E-mail: ttipi@encomix.es

BAZTAN




2.300 aziendatik goiti hil dituzte Iruritako hiltegian

Iaz, abuztuan zabaldu zenetik abendura bitartean

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko abuztuaren 4ean lanean hasi zenetik eskualdeko 2.327 azia hil dituzte Baztango hiltegian. Jakina denez, inguruko hiltegi industrial bakarra izanik, Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta Bertizaranako herri guzietako harakinak eta partikularrak jotzen dute bertara, beraien aberak hiltzeko. Doneztebeko hiltegia itxi zuten eta Berako hiltegiak martxan segitzen badu ere, bertan hildako aziendak herrian bertan kontsumitzen ahal dira. Hori dela eta, «Berakobi harategitik ere etortzen zaizkigu aziendak

hiltzera» dio Isaac Rekalde amaiurtarrak, hiltegiko arduradunetako batek. Berekin batera, Juan Zaldain eta Sebastian Gallego elizondarrak ari dira. «Hasmenta guziak bezala zaila izan da, baina pixkan-pixkan trebatzen ari gara» diote. Astelehenetik ortzegunera aritzen dira, 7,30etan hasi eta «akitu arte, lanaren arabera». Prezioei dagokionez, aretzea kanalean kiloko 20 pezeta kobratzen dute, zerria 12 pezeta eta bildotsa 44 pezeta. Prezio hauei, azia guzietatik kiloko zortzi pezeta terdi gehitu behar zaie, garraio gastua estaltzeko.



Lekarozko Larraldearekin batera, Nafarroako sagardotegi denboraldia ireki da

Nafarroako sagardogileek Lekarozko Larraldea sagardotegia aukeratu dute aurtengo denboraldia hasteko. Hainbat jende famatu hurbildu zen txotx garaiari hasmenta ematera, ikusi bertzenaz gaineko argazkian ageri direnak: Patxi Larretxea kirolaria, Bittor Elizagoien bertsolaria eta Mikel Goñi pilotaria, umore ederrean kantari. Behitien berriz, Pottoka abeslaria eta Goñi, bere estiloa erakusten.

Argazkia: Karnele

1997an hildako aziendak				
Hilabetea	Aretzeak	Zerriak	Bildotsak	Ardiak
Abuztua	126	58	31	31
Iraila	117	69	34	36
Urria	110	61	85	58
Azaroa	120	65	156	47
Abendua	130	95	875	23
Denetara	603	348	1.181	195

20 milioi pezetako inbertsioa onartu da Hirurteko Planaren barnean

1997-99 Hirurteko Planaren barnean zenbait lan egiteko inbertsioa onartu du Nafarroako Gobernuak Leku Administrazioako Kon-

tseilariak. Baztango Balleko Etxeak egin beharreko lanak Arraioz eta Iruritako karriken zolaberritzea eta Zozaiako plazaren eta Erratzuko

Iturritzar karrika eta frontoiaren urbanizazioa dira. Aurrekontua 30.733.698 pezetakoa den bitartean, Nafarroako Gobernuaren inbertsioa 20.791.347 pezetakoa izanen da.

La Asturiana
ostatu • jatetxea
Tfnoa: 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

ARROPA DENDA
MERCERIA
FANTXIKE
JAIME URRIETA, 24
TFNO. 580112
ELIZONDO

Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

OPS Ingenieros S.L.
• **Topografi lanak:** Lur neurketak, balorazioak.
• **Nekazal proiektuak:** Bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...
Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602

Lekarozko eskola berriro irekitzeko asmoa azaldu dute gurasoek

Alkateak, halere, hori zail xamarra dela onartu du

TTPI-TTAPA

Hiru eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoei (hau da, Haur eta Lehen Hezkuntza ikasten dutenei) zuzenduko litzatekeen eskola berriro ere irekitzeko intentzioa azaldu dute Lekarozko gurasoek. Gaur egun, adin horietako Lekarozko 26 haur joaten dira Elizondoko konzentrazioa eta ikastolara, Pedro M^o Oskariz alkateak errandakoaren arabera. «*Hasierako asmoa, orain dela 15-20 urtez geroztik itxia dagoen eskola, obra batzuk egin ondotik, berriro zabaltzea da, Hezkuntza Sailak desafektatu edo jabez aldatu baino lehen*». Gai honetaz aritzeko, hilbeltzaren 19an batzarra egin zuten Lekarozko eta alkatearen ustez «*ez zen deus garbirik atera. Gurasoek egoera zertu eta ortziralean bertze batzarre bat egiteko gelditu ginen*». Halere, Hezkuntza Sailetik «*eskola berri zabaltzea kasik ezinezkoa dela*» erran diete.



Istripu ikaragarria Mugairiko gasolindegian

Aitzineko alean kamioi batek Katalan etxea jo zuela aipatu genuen. Oraingoan, bertze batek, hilbeltzaren 20an, arratsaldeko 5ak aldera, Mugairiko gasolindegia suntsitu zuen. Zorionez, ez zuen kalte pertsonalik eragin –kamionari frantsesak, bi orduz atera ezinik egon eta nerbio krisi bat sufritu bazuen ere–. Eduardo Mutuberria langilea eta bezero batek, kamioia gainera zetorrela konturatu eta, alde egitea lortu zuten. Florentino Goñi Oronozko alkateak saihebidetaren beharra azpimarkatu zuen, «*hilabete baten barrenean inguru horretan gertatu den bigarren istripua baita*».

Argazkia: Ondikol

San Anton Eguneko behia Doneztebera

Aspaldiko urteotako San Anton egunik jendetsuena izan zen aurtengo Elizondoko. Alde batetik, eguraldi onak eta bertetik aste ondarrak izateak lagundu zu-

ten horretan. Zozketan, esne-behia Doneztebera Fernando Anduezak eraman zuen (9.321 zkia), bi bildotsak Elbeteiko Martin Karrikak erteratu zituen (2.742)

eta magra Beartzungo M^o Pilar Urrutiak. Hau idazterakoan ez da zeriaren jabea agertu. Beraz, 15.106 zenbakia poltsikoan baduzu, zorionak eta mugi abudo!

flash

- ❖ **Arizkongo**
Bergara auzoko aparkalekua moldatu eta euriaz eta haizeaz babesteko aterpea egitea eskatu dio Balleko Etxeak Nafarroako Gobernuko Garraio Zerbitzuari.
- ❖ **Arizkongo**
mediku kontsultan faxa jartzeko 53.360 pezetako dirulaguntza eman du Osasunbideak.
- ❖ **Matrikulazio kanpaina**
zabaldu du Baztango AEKk hilbeltzaren 30a arte. Ikasurte honetan, 3., 5. eta 7. urratsak eskainiko dira. EGA eta eskuara hobetzeko ikastaro berezietan ere apuntatzen ahal da. Izen ematea 452471 telefonoan egin behar da. Kanpaina honen barnean AEKk kontzertu bat antolatu du otsailaren 14an, Erratzuko frontoian, *Sutagar* taldearekin.
- ❖ **Kultur ekitaldiatarako**
fidantza ordaindu behar izatearen kontra azaldu zen HB azkeneko Batzar Orokorrean. Hau egitea ez omen da zuzena, talde aunitzek ezin baitute diru hori aurreratu.

Baztanen... **24 orduko zerbitzua**

ESTHER

LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilketak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beziitzeak, etab...

Eta Iruñean...

IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 58 09 71 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Trikuharri eta harrespilen erreprodukzioak jarri nahi dituzte aurten leze inguruetan

Hori da Xareta elkartearen aurtengo egitasmo nagusia

TTIPI-TTAPA

Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako Udalak turisma aferetarako biltzen dituen Xareta elkarteak zenbait egitasmo edo proiektuak antolatuak ditu aurten egiteko.

Garrantzitsuena, Sarako leze inguruan muntatu nahi diren trikuharri eta harrespilen erreprodukzioak izanen litzateke. Modu honetan, «Euskal Herriko hileta-errito edo ohiturei buruzko museo bat egin nahi da», Elias Tapia, Sarako lezeen arduradunaren erranetan. Proiektu honi buruz, Xaretako arduradunak Aranzadi zientzia elkarte eta Nafarroako Gobernuko ordezkariekin solasean ari dira eta oraindik guztiz zehaztu gabe badago ere, aintzina-bidea duela iduri



Turismarako baliabideak indartzeko asmoa du te aurten ere Xaretako arduradunek Artxiboa

du. Tapiak dioenez, «trikuharri eta harrespilak harriz eginak izanen dira eta ongi zaindu behar dira. Bidaxkak bezalaxe, ez da aski pa-

ratzearekin, gero mantendu eta txukun mantendu behar dira».

Bertzalde, inguruko herrialdeetan turismaren inguruan burutzen

Ikastaroak

Jakina denez, Xareta elkarteak zenbait ikastaro antolatu ditu. Informatika ikastaroan hirtan hogeitabat lagunek parte hartu dute eta dagoeneko bukatu da. Hizkuntza ikastaroak, berriz, otsailaren 15ean bukatuko dira. Honetan ehun lagun ari dira, gaztelera, frantsesa eta euskara ikasten. Bertzalde, gan den urtean hasi zen aurrehistoria eta ikastaroaren bigarren zatia hasi berria da. Guztira 60 orduko ikastaroa da eta iaiz 25 ordu egin zirenez, orain hasi eta ekaina bitarte gainerako 35 orduak emanen dituzte.

den lana ikusi eta, ahal bada, ikasi asmoz, Xaretako eta Baztango landa turismo baserrietako arduradunak Gipuzkoa eta Bizkaian izan ziren hilbeltzaren 20 eta 21ean. Elias Tapiaren erranetan, «martxoaren hastapean beraiek etorriko dira Elizondo alderat, baita Urdazubi, Zugarramurdi eta Sararat bitan». Elkartrukea «oso aberatsa» dela uste du saratarrak.

SENPERE

Bertsu-afaria otsailaren 7an Oxtikenean

Jokin Sorozabal, Rikardo Gonzalez de Durana eta Baionako bertsulari ikasleak arituko dira otsailaren 7an, Oxtikenean antolatutako bertsu-afarian. Izen ematerakoan 120 libera ordaindu behar dira (0559291568 tel.).

ttipi-ttapa internet
<http://www.encomix.es/ttppi-ttapa>
 E-mail: ttipi@encomix.es

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

Okindegia Jatetxea

Uxoa

Polig. Ind. Ordoki Tfn.: (948) 45 34 03 31713 ARIZKUN

- Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkarqatuz gero, bildotsa oqi-labeen erreca. Goxo-goxoa!

ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
 Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
 Faxa: 581274

Karneval 98
burda

Colon Ibilbidea, 1 • **IRUN** • Tfnoa: 943-622210




Tejidos Marinaran dagoeneko

Īnauterietan

- Mozorro-jantzien alokairu, salmenta eta josketa.
- Sekulako aukera tela, mertzeri, txano, peluka eta era guztietako osagarrietan.
- Betegarri gisa, espumak plantxetan eta puxketan

*Ez denborarik galdu,
bisita gaitzazu,
espezialistak gara*



**DEUTZ
FAHR**

Modelo berriak

Orain zugandik hurbilago

- Traktoreak • Rotoenpakadorak •
- Belar higitzaileak •
- Belarra mozteko diskoak •
- Errekanbioak, etab...

**Alemaniano
kalitatearekin**

*Zure aukerak haunditu
eta hobetzen ditugu*

**Etorri konpromisorik gabe,
azken nobedadeak ikustera**


Kontzesionario berria
SAME - DEUTZ FAHR Banatzailea



ARoz-BERRI, S.A.

© 948.581021 • IRURITA

SEGURTASUNA • ZERBITZUA • EFIKAZIA



TTIPI TXARTELArekin

dirua eta gauza gehiago ere irabazten da



DESKONTUAK

AISIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ. Bertiz %10

AUTO TALLERRAK

MENDAUR MOTOR Doneztebe %10 Kubiartetan
 SANPI ARAGON Doneztebe %10 Kubiartetan
 PEDRO GARMENDIA Elizondo %20 Olio aldatzeak
 DATUGELAY Elizondo %15 Bateria + amartiguadorea
 SANSINENA Elizondo %15 Olio aldatzeak %20 Frenoak
 LAGOSTA Irurita %100 Pre-ITV
 ZALAIN MOTOR Bera %5 Errekanbiotan

AUTO-ESKOLAK

SEMPER. Bera %10 Matrikulan

ARGAZKI DENDAK

GOIKO Bera %10 Errebelatze eta arg. materialak
 AYLA Bera %10 makineta izan ezik
 MENA Doneztebe/Elizondo %10
 ZALDUA Doneztebe/Elizondo %10

ARROPA DENDAK

EDURNE Bera %10 (5.000 Patatik. aurrera)
 SAIOA Doneztebe %10
 J.J. PICABEA Doneztebe %10 Galtza marka batzuetan ez
 TXIRRISTA Doneztebe %10
 KAMAMILA Doneztebe %10
 PICABEA BOUTIQUE Doneztebe %10
 IPINGI Elizondo %10
 COCOS Elizondo %10
 KATTALINGORRI Elizondo %10
 FANTXIKE Elizondo %10 (5.000 Patatik. aurrera)

EDARI BANATZAILEAK

MANUEL TABERNA Bera %3

ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS Lesaka %5 Elektrogailuetan %15 Antenetan
 ALTZURI Lesaka %5 Elektrogailuetan %20 Mat. elek.
 RADIO BIDASOA Bera %10 Deskontu baleak

ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA Doneztebe %5 Kosmetikan %10 Oparietan
 BEATRIZ Elizondo %10 (5.000 Patatik. aurrera)
 MARIAN Lesaka %10

KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK Elizondo %8
 ZELA KIROLAK Bera %10
 AGARA KIROLAK Bera %10 Kirol Artikuluetan
 M^a LUZ SPORT Bera %10 Arropetan. Kirol artikuluak ez.

LENTZERIAK

M^a CRUZ Doneztebe %10 (5.000 Ptatik. aurrera)
 MAITE Elizondo %10 (5.000 Ptatik. aurrera)
 DENE Lesaka %5 Kortseterian %10 Lentzerian

LIBURUDENDAK

NAFAPRESS Elizondo %10 Liburu eta ikas-materialak
 LEGARRA Lesaka %10 Lib. + ikas-matec. (1.000 Pta.)

MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK Doneztebe %6
 LEIZA Elizondo %10 Sukalde mobletan

OPTIKAK

OSTARGI Bera %10

PENTSUAK

MENDAUR PENTSUAK Doneztebe %2-5 Pentsu eta osagarrietan


ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS Bera %10
 GONI Elizondo %10 (2.000 Ptatik. aurrera)
 B. ALMANDOZ Elizondo %10 (3.000 Ptatik. aurrera)
 NEREA Doneztebe %10
 OSTIZ Doneztebe %10

ZURGINAK

ZINEIDA Elizondo %5 Saldutako eta erregulatuak

Berako AGARA Kirol denda, errate baterako, %10eko DESKONTUA izanen kirol artikuluetan



...eta Elizondoko SANSINENA auto tailerrean, %15eko DESKONTUA olio-aldatzetan eta %20 frenoetan. Eta horrela bertze 49 zerbitzuetan

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK saltzen dituen txartelak erosiz, gauza aunitz lor ditzakezu: ttipi-ttapa lagundu, eskualdeko dendak bizkortu eta erosketak merkeago egin.

Informazio gehiago:

631188

Herriko plaza, itxura berri edo xahar berritu baten bidean

Dirulaguntzak oraino jasoak ez badira ere, martxoan hasiko dira lanak

MIXEL ETA JACQUELINE

Sarako plazan egin behar diren obrak zailak ziren diru arazo batzuegatik, baina orain Herriko Etxeak lanen hastea erabaki du martxoan. Diru laguntzak ez dira oraino jasoak izan eta ez badira eskuratzen herriak maileru baten egitea aipu du. Hasiera batean, errebotea eta hunen inguruak antolatuak izanen dira eta gutienez hiru hilabetez gune hauek ezin izanen dira baliatu.

Bertsolariak otsailaren 15ean

Olhain ikastolak aurtengo bertso saioaren hitz-ordua otsailaren 15ean finkatu du. Eten-gabe egiten den hemezortzigarren saioa da eta arratsaldeko 4etarik goiti entzuten ahalko dira:

Hegoaldetik: Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu eta Jon Maia.

Iparraldetik: Txomin Ezponda, Jean Louis Laka eta Jean Pierre Mendiburu. Mixel Itzaina aurkezle eta gaitailea izanen dute.



Ondarroako euskaltegia bisitan

Zazpi probintziatarik etorri gizon, neska eta emazte aunitz, urtean zehar Ondarroako AEKko barnetegian elkartzen da. Barnetegiko kideek Iparraldera jotzeko gogoia zuten. Han bertan bi hilabetez aurkitzen zen Mikel Dalbret saratar margolariak jakinarazi zien Sara zela Euskal herriko herririk pollitena...! Hau dela eta, erabaki zuten Saran egonaldi bat egitea, urtarrilaren 15etik 18rat. Hogoita hamar bat lagunetz osatu mementoko taldea jin zaigu asteburuaren pasatzera eta gure bazterren zeharkatzera. Zugarramurdiko kobazuloak zein Axularren herrixka, bai Sarako lezeak eta bertze ikusi dituzte. Jakin dugunaz, egonaldi zoragarri miresgarria izan den horri amaiera eman zioten igandean Larrunerat igoz. Azpimarra dezagun bururatzeko, horrelako bidaiarik ezin izanen zela gertatu Omordia oporretxeko zuzendariaren laguntzarik gabe.

Milesker beraz, Daniel Laplaceteri, euskaltegiko irakasle eta ikasle guzientz izanen!

Mus nahiz belote karta jokuetan ardura Saran


Negua dela eta, kartazaleak azkar dabilta jostatzeko nahiko parada ukanez:

Musean, Frantziako xapelketaren kondu hogoita bortz bikote oraidanik ari dira ortziralero Herriko Etxeko edantegian; Portuga jatetxean laster abiatzekoa da.


Rugby taldeak ere bigarren urteko mus afaria antolatu du, otsailaren 7an, Animateko bilgunean.

Herriko Etxeko edantegiak, azkenik, bere lehiaketa otsailaren 13an hasiko du. Xapeldunek saritzat ukanez dute asteburu bat Bordeleko eskualdean.

Bertzalde, belote jokoa aritzeko aukera ere izanen da. Atzerriko joko hunek arrakasta badauka eta San Pedro ostatuak lehiaketa bat antolatu du, otsailaren 6an.



• Hileta artea



KALITATEA eta ESPERIENTZIA

- Marmol eta granitoak
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Lanak orokorrean

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • Tel. eta faxa: 45 22 00

HERRIKO ETXeko EDANTEGIa

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA



ttipi-ttapa

6.500 harpidedun
22.000 irakurle

Zure publizitatea
etxe xoko
guzietan

☎ 63 11 88

EZKONTZAK

Pedro Campos Martin eta **Patricia Sagastibeltza Zabaleta**, Donostia eta Leitzakoa, 1997ko irailaren 20an.

Francisco Javier Salazar Zizaurre eta **Miren Edurne Otamendi Ezeiza**, Tutereta eta Andoaingoa, Beran, urtarrilaren 17an.

JAIOTZAK

Uñai Sagarzazu Saldias, irundarra, urtarrilaren 6an.

Miguel Fagoaga Leiza, Iruretakoa, urtarrilaren 2an.

Iñigo Dendarieta Elizaintzin, Iruretakoa, urtarrilaren 9an.

Josu Sukunza Telletxea, Leitzakoa, urtarrilaren 17an.

Izaskun Lekuberría Gamio, Donamariakoa, azaroaren 5ean.

Josu Babaze Buldain, Urrotzkkoa, abenduaren 5ean.

Beñat Elizalde, Sarakoa, urtarrilaren 13an.

Mireia Garzia Garzia, Igantzikoa, abenduaren 22an.

Garbiñe Leiza Irazoki, Berakoa, urtarrilaren 6an.

Uxue Zelaieta Danboriena, Berakoa, urtarrilaren 17an.

Javier Musgo Dominguez, Berakoa, urtarrilaren 17an.

Rosa M^a Gimenez Jimenez, Berakoa, urtarrilaren 15ean.

Iñigo Etxegarai Aldabe, Berakoa, urtarrilaren 20an.

HERIOTZAK

Geronima Martínez García, Elizondon, urtarrilaren 9an, 86 urte.

Jose Antonio Baleztena Gonzalez, Doneztebekoa, urtarrilaren 13an, 47 urte.

Jose Perurena Intxauspe, Goizuetakoa, urtarrilaren 16an, 57 urte.

Jose Angel Lasaga Telletxea, Lesakakoa, urtarrilaren 10ean, 88 urte.

Cancelaria Ezkurra Andiarena, Donamariakoa, abenduaren 17an, 89 urte.

Francisca Zubieta Larretxea, Arantzakoa, urtarrilaren 16an, 88 urte.

Marcelo Salgado Salgado, Berakoa, urtarrilaren 10ean, 58 urte.

ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaila hau, haur-garbitzarako produktuez bete, emango dizugu.

Ez ahantzi familiararen liburuxka!

IRUÑEKO  KUTXA 

LARRALDEA

Sagardotegia




IDEKITZE ORDUAK

- Astartetik ortziratera 8etatik aitzin
- Larunbat-igandetan egun osoz

Deitu lekua gordetzeko
Tfnoa: 452121 • LEKARoz

ttipi-ttapa



Eskatu informazioa.

Bidali

TTIPI-TTAPA

herritik kanpo
bizi diren
lagun edo
famiakoei

Bakar bakarrik bidaltze
gastuak ordaindu behar
dira.

 631188

Emakume nekazarien hitza

Ahozko lekukotasunak bildu nahi ditu Bidasoa Ikerketa Zentruak lehiaketa bidez

Emakumeak betidanik izan du funtsezko eta ordezkazina den papera nekazal ingurune guzietan, nahiz eta berte arloetan gertatu den bezala, historia liburuek gizonaren lana gorai-patu duten bereziki (Adibide gisa herri-kirolak ditugu, edo nola gizonaren lanak mitifikatu eta kirol bihurtu diren, emakumeenak bazter batean utziz).

Eskualdeko hainbat emakume nekazariren lekukotasunak jasotzea gure historiaren liburua osatzeko zein garrantzitsua izan daitekeen ohar-tu dira, bertalalde, Bidasoa Ikerketa Zentrua eta Behinpin elkarteko ki-deak. Helburu horrekin zabaldu dute honako lehiaketa-deialdia, eta otsailaren 15etik aitzinerat emakume nekazarien ahotik ahalik eta

xehetasun gehien hartu beharko dute, grabagailua eskuetan, parte-hartzaileek, irabazlearentzat dauden 75.000 ptak sakeleratu nahi badituzte bederen.

Lekukotasunen kantitatea ez da, ordea, sariak partitzeko orduan kontuan hartuko den erizpide bakarra, grabazioen euskara maila eta hitzen balio historikoa izanen baita garrantzi-


tsuena, elkarrizketatuen artean bildutako materialarekin liburu bat argitaratzea ez baitute bazterten antolatzaileek.

Oinarrizko arauak finkatzeko bilkura eginen da otsailaren 15ean Malerrekako IKA Euskaltegian, eguerdiko 12etan, eta lanak ekainaren 30a artio aurkeztu ahalko dira. Informazio gehiago 450056 telefonoan (Juainas).

Laburrak

❖ **Jabier Muguruza** bakarlariaren saioa izanen da bihar, hilbeltzak 30, Lesako Kattu ostatuan. Irundarrak "Aise" izeneko bere hirugarren diskoa aurkeztuko du arratseko hamar terdietatik aitzinera.

❖ **"Metaziri"** izeneko fanzinearen lehen alea ateratu dute Baztango Gazte Asanbladakoek. 150 ptaren truke eros dezakezu ostatueta.



Baztango Gazte Asanbladak ihauteriei begira antolatu duen ikastaroan 20 lagun inguru apuntatu dira, eta larunbat arratsalderetan eskulanetan aritzen dira Amaia Zinkunegi irakaslearen erranak segituz. Oraindik hilabete osoa gelditzen zaien arren mantso-mantso ari dira maskarak eta gainerakoak prestatzen.



Eskuineko argazkian ihauterietako mozorro beldurgarria ageri da, haurrak edo nornahi uxatzeko pizontzi eta guzi.

Behealdean berriz, Amaiak 1994an Erratzun emandako bertze ikastaro batean parte hartu zuten etxeoandreak ageri dira, beraiek egindako paperezko buruhandiak jauntzita.



Mozorroak prest!

Artile, oihal eta ardi-larruak erabili dituzte

Arras harrera ona izan du Baztango Gazte Asanbladak ihauterien atarian antolatu duen Mozorro Tailerrak. Ikastaroan izena eman zuen 20 laguneko koadrila larunbat arratsaldero bilduzten da Baztandarren Biltzarren Elkartearen bitartean segituko dute horrela. Elizondoko ihauteriak ailegatzeko diren aski harro jauntziko dituzte euren eskuekin egindako mozorroak.

Amaia Zinkunegi monitorearen begiradepan irudikoak beza-

lako maskarak egiten trebatu dira baztandar gazte hauek, lanak eskatzen duen pazientzia guziaz ahal bezala bilduz.

Batez ere oihalak, artilea eta ardi-larruren bat edo bertze erabili dituzte mozorroak egiteko, lehenagoko ihauterietan –zenbait herritan gaur egun oraindik– ere hoiexek baitziren jauntzien osagai nagusiak. Adarrak lortzea, bertalalde, zailxeagoa omen da bainan bakarren bat harrapatu ezkereragiz ongi ematen dute jauntzi hauekin.

Ihauteriak herriz-herriz

- ✗ **Azpilkueta:** otsailaren 6 eta 7an.
- ✗ **Arantzeta:** otsailaren 12tik 14ra.
- ✗ **Areso:** urtarrilaren 30etik otsailaren 1era.
- ✗ **Arano eta Saran:** otsailaren 21 eta 22an.
- ✗ **Elizondo, Lesaka:** otsailak 21etik 24ra
- ✗ **Bera, Irurita, Arizkun, Erratzun, Igantzi eta Goizuetan:** otsailaren 22tik 24ra.
- ✗ **Doneztebe, Lekaroz eta Amaiurren:** otsailaren 20tik 22ra
- ✗ **Etxalar:** otsailaren 23 eta 24an.

DATUAK.....

1 Antonio Bru orain 24 urte jaio zen Beran.

2 Urtarrilaren 18an Nafarroako kros txapelketa irabazi zuen Burlatan. Rafa Maritxalar lesakarra eta Maika Ariztegi ittundarra laugarrenak izan ziren.

3 Bru 14 urterekin hasi zen laisterka Gure Txokoa taldean eta gaur egun Beste Iruña taldearen izenean ari da.

4 Entrenatzeaz gain, Iruñeko kirol denda batean ari da lanean, «atletismotik bizitzea ia ezinekoa da» bere ustez.

5 Momentu honetan, 110-120 kilometro egiten ditu astero entrena-menduetan.

TESTUA:
AITOR AROZENA

Antonio BRU Berako korrikalaria

“Euskadiko kros txapelketan iazko seigarren postua hobetu nahi dut”

Ustekabean irabazi du Antonio Bru beratarak aurtengo Nafarroako kros txapelketa. «Nere asmoa podiuma egitea zen, aurtengoan maila hagitz altua baitzegoen, aintzineko urteekin konparatuz. Azkenean, pentsatu baino hobe atera zen» dio. Orain arte Irungo San Silvestre proba eta Lizuniagako Igoera pare bat aldiz irabaziak zituen, baina garaipenik inportanteena Burlatkoa izan da. Izan ere, gibelean utzi zituen Gabriel Garin, Rafa Maritxalar edo Andres Martinez favoritoak.

Hamalau urte zituela hasi zen atletismoan Gure Txokoa taldean. Zazpi urte eman zituen Berako taldean eta han hasi zen ezaguna egiten. «Junior mailan cross bat irabazi nuen Tuteran eta sorpresa izan zen. Orduan nere gisara entrenatzen nuen Beran, guztiz ezezaguna nintzen. Zu nor zara? galdezka etorri zitzaidan jendea». Urtebete Lizarrako Irantzu taldean egon zen eta azken bi urteak Beste Iruña taldean ari da.

«PISTAKO MARKAK HOBETU NAHI DITUT»

Nafarroako kros txapeliduna izanda, otsailaren 8an Lizarran burutuko den Euskadiko



«Atletismoa afizioa baino gehixeago da, denbora aunitz eskaintzen baitiot»

txapelketarako itxaropentsu azaltzen da Bru. «Iaz seigarrena izan nintzen eta ea aurtan postu hori hobetzerik baduten, baina zaila daukat, maila haundia izanen delakoz. Ilusio haundia egiten dit, telebistan agertzen baita. Aitzinetik 3.000 metroko proba batean parte

hartuko dut Zaragozan». Halere, ez du begien bistatik kentzen pistako probak, «azken finean, atletismoaren munduan eman eta kentzen dizuna pista da». Iraupeneko probetan parte hartzen du, 5.000 eta 10.000 metrotan. Bere markak, 14' eta 39" eta 30' eta 45" dira distantzia hauetan. «Hamarko marka orain bi urte lortu nuen eta geroztik estankatu xamarra nago markei dagokienez. Aurtan 30 minututik jaitsi nahi dut».

Laisterka egitea Antoniorentzat «afizio bat baina gehixeago da denbora aunitz eskaintzen baitiot, baina hortaz bizitzea zail xamarra da». Horregatik Iruñeko kirol denda batean ari da lanean. «Bi gauzak gustatzen zaizkit eta asti libre aprobeztatzen dut entrenatzeko». Bere burua «atleta diesela» bezala definitzen du. «Erritmo aldaketa pixko bat falta zait, baina erritmo gogor bat denbora luzez mantentzeko gauza naiz».

► «Atleta diesela naizela erran daiteke. Erritmo gogor bat denbora luzez mantentzeko gauza naiz, baina erritmo aldaketa egitea pixko bat gehixeago kostatzen zait.»

Baztango gazteak gerora begira prestatzen, baina igoera alde batera utzi gabe

Nagusiek bezala, jogan den urtean maila galdu zuten Baztan futbol taldeko jubenilek. Aurren bigarren mailan ari dira eta beraien multzoan laugarrenak doazen arren, Lauri Calvo entrenatzaileak arraz zaila ikusten du aurren igotzea. Multzoko bi lehenak sailkatuko dira igoera fasean aritzeko. Nafarroako 2. mailan borts multzo daudenez, guzira hamar talde arituko dira 1. mailara igo nahian, baina hiru lehendabizikoek bakarrik lortuko dute. «Zaila da igoera faserako sailkatzea ere –dio entrenatzaileak–, hasierako partiduetan huts egin baikenuen eta orain abantaila dexente dutelako», baina matematikoki aukerak ditugu oraindik».

Calvoren ustez talde ona dute, oraindik esperientzia falta nabari badute ere. «Giltxaurdin aritzen ohituak daude eta lurrezko zelaietan ez dira batere ongi moldatzen. Gainera gazte xamarrek dira eta 18 urteko batek bultzada eman eta ez dakit noraino bidaltzen ditu, baina kalidadea bada».

Horren adibidea izanen litzateke Pello Urrutia, 15 urteko erdilaria. «Kadetea izanik gurekin ari da eta Nafarroako selekzioetik ere deitu dute».



Hemendik bizpahiru urtera talde bikaina izanen dute nagusiek, Lauri Calvoren ustez

Jokalaria	Postua	Jaiotze E.	Herria
Josu Arteta Mitxelena	Atezaina	80-12-17	Elizondo
Raul Garate Arrieta	Atezaina	81-05-22	Elizondo
Javier Maia Etxeberria	Atzelaria	81-01-31	Elizondo
Javier Olondriz Urrutia	Atzelaria	81-02-03	Elizondo
Iban Ursuegi	Atzelaria	1981	Elizondo
Jose Etxeberria Iturbide	Erdilaria	81-01-09	Arizkun
Roberto Fleita Perez	Erdilaria	81-01-29	Elizondo
Jon Idoate Irigoien	Erdilaria	80-12-07	Lekaroz
Iñaki Telletxea Zaldain	Erdilaria	81-06-06	Elizondo
Pello Urrutia Barberena	Erdilaria	82-04-19	Elizondo
Joseba Urtasun Saldias	Erdilaria	1981	Irurita
Ruben Altzugarai Galarregi	Aurrelaria	80-09-06	Elizondo
Iñigo Amorena Urdaniz	Aurrelaria	81-11-21	Arizkun
Iñaki Bidegain Ameztoui	Aurrelaria	80-11-17	Elizondo
Agustin Cebrian Bidegain	Aurrelaria	80-07-26	Arizkun
Mikel Habans Sanzberro	Aurrelaria	1980	Elizondo

Lauri CALVO Entrenatzailea

«Hemendik bizpahiru urtera Baztango nagusiek talde bikaina izanen dute»

Zein helbururekin hasi duzue denboraldia?

Mailaz jautsi ginen iaz eta orain arras talde gaztea daukagu. Bi ezik, datorren denboraldian denak segitzeko moduan daude. Horregatik hasierako helburua jokalaria egitea izanen litzateke. Halere, aurren igotzeko aukera izan dugu, baina esperientzia falta sumatu dugu zenbait partidutan –bi azkenen kontra bi partidua galdu ditugun bakarrak izan gara–. Oraindik ez dago dena

galdua, baina zaila izanen da, aitzinean daudenak –Salesianos eta Ardoy– huts egitea ez da errega.

Nola definituko zenuke taldea?

Teknika aldetik ongi moldatzen dira eta talde erasokorra da. Egiatzko arazoak izaten ditut atzelari lerroa osatzeko, denak erditik aitzinera jokatzen nahi baitute. Nik Baztanen ikusitako artean jubenil talde onenetakoa da. Orain, pazientzia izan behar da eta hemendik hiru urtera Baztanek talde bikaina izanen du.

Klubaren datuak



Elkartearen izena:

Baztan F.T.

Sorrera: 1922

Bazkideak: 430

Helbidea:

Kasinoa
31700 ELIZONDO

Tel.: 453017 (Rafa)

Aurrekontua:

xxx

Futbol zelaia:

Giltxaurdi.

Lehendakaria:

Esteban Ustariz

Sekzioak:

Futbola (Preferente, jubenilak, kadeteak) eta rugbya.

Jubenilak

Maila: 2. Jubenila

Iaz: 1. Jubeniletik jautsi

AGENDA EGUNEZ EGUN

AGENDA PRAKTIKOA

KONTZERTUAK

LESAKA

► **Bihar, hilbeltzak 30**, Jabier Muguruza ariko da Kaitu estatuan. Arratseko 10,30ak.

BERA

► **Urtarrilaren 31n**, Pui estatuan TC-10 taldeak joko du arratseko 9etan; eta segidan, arratseko 10etan Live in the attic hondarbitarrak ariko dira, hango beltze talde batekin batera. Dohainik.

► **Otsailaren 7an**, Pui Victor de Diego eta bere Jazz taldea. Gaueko 9ak aldera.

BERTSO AFARIAK

SENPERE

► Otsailaren 7an

Bertsu afaria izanen da Oxtikenean, arratseko 8,30etan. Bertsolariak: Jokin Sorozabal, Rikardo eta Baionak bertsulari ikasleak. 120 libre. Izen-emateko telefonoa: 0559291568 edo 0559541143.

BERTSO SAIOA

SARA

► Otsailaren 15ean

arratsaldeko 4etan Andoni Egaña, Txomin Ezpona, Jean Louis Laka, Jon Maia, Pierre Mendiburu eta Jesus Mari Irazu bertsolarien saioa izanen da. Gai-emailea: Mixel Itzaina.

TTIPI-TTAPA TELEBISTA



Hemengo eta hango irudiak hartzen hasiak gara honezkero.

Telebistari buruzko zenbait xehetasun

Etxe aunitan proba-seinalea ikusten dute dagoenekoz


Joan den urteko azken alean erratan genuen bezala, TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN proba-seinalea (gazte-raz *carta de ajuste*) Bortzietako etxe guzietan hartzen ahal da dagoenekoz, bainan nahaste ttikiren bat sortu omen da, bertzalde, kanala bilatzeko orduan.

Zenbait jende sintoniaren eta telebistaren kanalak nahastu ditu nonbait, eta seinalea harrapatu ezinean gelditu da horregatik. Argi dezagun, bada, zein den bien arteko diferentzia, hemendik aitzinera gisa horretako gaizki-ulerturik gerta ez dadin.

Bata bertzearekin konparatu ezker, telebistaren sintonia irratiko dialaren parekoa izanen litzateke, eta hantxe bilatu behar da TTIPI-TTAPA TELEBISTARI dago-kion 49. kanala, ez telebista aparatua dituen kanal ezberdinetan. Beraz, telebistek dituzten 10, 20, edo 40 kanal hoietako edozeinetan sintonizatu daiteke 49. frekuentzia hori, justuki ETBK emititzeko erabiltzen duenaren ondoan.

Gainerakoan, erran pres-taketak aitzinera doazila, eta bizpahiru hilabetetan emititzeko moduan izanen gara.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 9.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 166 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 100 pta./kiloa, bizirik.




❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
- **Idixkoak**: Pta./kg. Kanal
- Extra580
- 1.koa560
- 2.koa530
- **Urruxak**: Pta./kg. Kanal
- Extra600
- 1.koa580
- 2.koa550
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak**: urruxak 15.000 eta idixkoak 26.000 Pta.
- Mestizoak**: urruxak 28.000 eta idixkoak 40.000 Pta.
- Behi zaharrak**: Behi nabar gizona: 370 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 410 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

LIBURUAK



«Hitzen ondoeza»

Joseba SARRIONANDIA
TXALAPARTA

«LATINOAMERIKA: Beste izen batzuk ere ematen zaizkio. Esate baterako, *Subamerika*»; «ZERUA: Begibistakoa den arren, denok ikusten dugun zeru urdin hori azken finean ez da ez 'zerua' ez 'urdina'». «BAKARDADEA: Bakardadea, bakarrik izatea baino gehiago da. Bakardadea, zure gelara eskailera bera igotzen ez denean da.

Gisa horretako 900 definizio filosofiko-xelebre baino gehiago aurkituko ditugu Sarriren azken liburuan. Burutazioaren bat sortarazten dioten hitz guztiekin hiztegi modukoa osatu du, eta zenbait hitzek bere barnean gordetzen duten kontradiktzioa azaleratzen du, maiz idazle desberdinen aipamenak tartean erabiliz, bainan bere estilo berexian beti ere.

FERIAK

Ezkongaien 1. Feria

Baztan-Bidasoan otsailaren 8an eginen da lehenengo aldiz, Etxalarko Bentan

Otsailaren 8an Etxalarko Bentan ospatuko da Baztan-Malerreka eta Bortzirietan egiten den ezkongaien lehenbiziko feria.

Egun osoan zehar luzatuko den feria honetan profesional desberdinek parte hartuko dute, eta ezkongai direnek, mota guzietako zerbitzu profesionalak aurkituko dituzte bertan; bazkaria, musika, loreak, arropak, ileapaindegiak, argazkiak, bideo-erreportaiak, automobilak, bi-daiak, bitxiak, etab...

Tratu pertsonalizatua eta opariak bisitarientzat

Antolatzaileek adierazi digutenez, ezkongai eta orohar egun horretan Feriara hurbilduko diren guztiei, «*tratu pertsonalizatua*» eskainiko diete, eta prezio bereziak lortzeko izanen duten aukera ahaztu gabe, opariak ere zozketatuko dituzte Feriaren bukaeran.


Desfileak eta janari-dastatzeak

Goizeko 11ak aldera ide-

Jantzidendak, lore-dendak, ileapaindegiak, argazki eta bideo profesionalak, automobilak... denetarik izanen da.

kiko da feria eta 12,30etan izanen da lehenbiziko desfilea. Eguerdian itxiko bada ere, arratsaldeko 3,30etan be-

rriro idekiko da eta arratsaldeko 7,30ak aldera izanen da bigarren desfilea. Desfile hauetan emakume eta gizonen jantziak ikusi ahal izanen dira.



Feria egunari akabera emateko, arratseko 8,30etan janari-dastatzea eskainiko da eta opariak banatuko dira.



DANETIK


BIDEO DIGITALA

Bideo erreportaiak
goi-mailako kalitatean
eta pertsonalizatuak

943 - 13 31 23

SANTA MARINA, 19 ZARAUZ

DISKAK



«Aise»

Jabier MUGURUZA

Elkar

«Gitarra bat nintzen» zioen Jabier Muguruzak bere aurreko lanean, oraingo hontan «piano bat nintzen» erran dezakeen moduan, hauxe baita, musikalki behintzat, bi disken arteko diferentzia nagusietako bat, gitarra tik pianorako pausua. Hirugarren diska «serio»tzat defini dezakegun honetan soul eta pop doinuetara jo badu ere, lehendik zeukan goxotasun eta

intimismoa gorde ditu Jabierrek, honetarako kolaboratzaile zerrenda luze bezain dotore baten laguntzaz gozatuz. Iñaki Irazu, Charles Baudelaire, Juan Kruz Igerabide edo Joseba Sarrionaindiaren olerkiez baliatu baita bere musika ederra hornitzeko. Bihar bertan diska berriko kantuak aditzeko aukera izanen dugu Lesakako Kattu ostatuan.

AGENDA EGUNEZ EGUN

IKASTAROKAK

MALERREKA

► Langarrak

antolatzen dituen ikastaroetan apuntatzeko epea akitzeaz dago honezkero. Eskualde osoko jendearentzat dira ikastaro desberdinak; yogakoa, sendabelarrak, txalaparta, antzerkigintza, bertso-larritza eta masaia. Azken hiru ikastarotatik izena emateko epea akitu da.

MENDI IRTEERAK

ELIZONDO

► Otsailaren 1ean

Arizkun-Mauritx-Arizkun ibilbidea eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

► Otsailaren 8an

iraupen-eskia egitera joanen dira elurretara. Beti bezala, Elizondoko Mendi ostatuan eman beharko da izena. Bazkideentzat 500 pta, eta gainerakoek 700.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

► Urtarrilaren 26tik otsailaren 1era

Lesaka, Sunbilla, Lezaun eta Goizuetan.

► Otsailaren 2tik 8ra

bera, Ituren, Iturralde, Leitza eta Goizuetan.

► Otsailaren 9tik 15era

Etxalar, Narbarte, Lezaun, Urdazubi eta Goizuetan.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-Iparrealdetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

LEITZA. Pisua salgai, bi ganbarekin. ☎ 610832.

LESAKA. Pisua salgai Bittirria karrikan. 3 logela, komuna, jangela, sukaldea. Egoera ezinhobean. ☎ 943-625305 (Irun).

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

DONEZTEBE. Pisua errentan ematen da, 30.000 pta hileru, moblerik gabea. ☎ 451661.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALGAI

BERA. Harategia salgai. ☎ 631284 (9etatik 1etara).

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

LESAKA. Garaje bat errentan eman nahi da, Albistur 39an. ☎ 637820.

Garaje subterraneoaren errentan emanen nuke Albistur karrikan. ☎ 637948.

LURRAK/ORUBEAK

112 SALGAI

BERA. Lur-eremua salgai, 28.000 m²koa. ☎ 630040.

BERA. 5.000 m²ko lur-eremua salgai, eraikitzen ari diren bordarekin. Ibardingo errepidean, 5. kilometroan. 6.500.000 pta. ☎ 630288 (arratsetan).

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

Juanjo ERRO

Zurgin lanak orokorrean
Moble zaharrak
konpontzen ditugu
• LESAKA •
☎ 989.800249

LANA

301 ESKARIAK

Klase partikularrak ematen nizkieke 16 urte arteko. ☎ 450378 Doneztebe.

15 urteko neska udan etxeko lanak egiten edo haurrak zaintzen gustora ariko litzaiteke. ☎ 592086.

LANA

302 ESKAINTZAK

Asteburuan lan egiteko zerbitzari extrak behar ditugu. Esperientzia izatea nahitaezkoa da. ☎ 450003.

IRUÑEA. Pertsona bat behar dugu ostatuan, barran eta jantokian aritzeko. Pre-miazkoa. ☎ 152196.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Citroen BX 1.6 Athena NAV salgai. ☎ 610780.

Citroen C-15 Diesela salgai, NA-W. ☎ 510558 (Gaueko 8,30etatik 10etara deitu).

Seat 127 Fura salgai, ITV pasatua. ☎ 627530.

Seat Marbella salgai. Egoera onean. ☎ 919-813334 (eguerdi eta arratsetan).

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

Patrol luzea salgai. 6 zilindroduna eta granate sintetizatu kolorekoa. NA-AB matrikula. ☎ 631199.

Audi SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko kotxeak, furgonetak eta 4x4ak erosten ditugu.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Rieuju 80 motoa salgai, egoera onean. 60.000 pezeta. ☎ 635136 (gauetan).

NISSAN BERABI tailerrak

☎ 631445 • BERA
Bigarren eskuko kotxeak:
Nissan Patrol GR luzea, NA-AL
Nissan Almera D.A.A. NA-AP
Ford Fiesta L, polita
Peugeot 309 GR - NA-T, polita
Kotxe berrietan ofertak

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Astra turbodiesela, Astra D,
Audi 100 turbodiesela,
Kadett GSI eta Corsa Diesela.
Suzukiak: Vitara eta Samurái.

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

Opel Kadett 1.6 autoaren piezak saltzen dira (1988 urtekoa). Zilindro bateko motore diesela. ☎ 599038.

Erremolke-enganxea eta antiniebla Renault 5 bate-nak salgai. Erabili gabeak. ☎ 637331 (arratsetan).

ANIMALIAK

601 SALEROSKETAK

3 urteko zaldi bat salgai. Mendian ongi ibiltzen dena eta berak bakarrik estaltzen ongi dakiena. ☎ 510356.

Aharia mutur horia salgai. ☎ 630244 (eguerditan).

Zerrama gizendua salgai, hiltzeko. ☎ 634093.

Miga suizoa, arraza onekoa, salgai. Bi urte bete gabek eta zazpi hilabete er-nari. ☎ 634065.

ANIMALIAK

602 EMATEKO

Arratoi-ehiziko **bost zakurkume** oparituko nituzke, hilabete batekoak. ☎ 450950.

ALBAITERITZA KLINIKA
Txertoak, analisiak, kirurgia,
pentsuak eta osagarriak
☎ 631362 • Legia 13 • BERA



DENETARIK

702 SALEROSKETAK

"Los Hollister" eta "Los Cinco" liburuak erosiko nituzke. ☎ 615124.

ETXeko IZENTAILATZEN DA

FORMA ETA MARRAZKI EZBERDINAK
Inork erantzuten ez badu utzi zure
tfnoa erantzungailuan eta deituko zaitugu ☎ 943-611458

Serigrafiarako tresneria salgai, prezio onean, berria. Erosketarekin materiala oparitzen dugu. ☎ 943-619000 (Mikel).

Haritz-amerikano plantak salgai. ☎ 450771 (Paulino).

Vaporetta salgai. ☎ 634093.

Haritz amerikano plantak salgai. ☎ 450888 (eguerdi eta arratsetan).

Esne-tankea, 150 litrokoa, 40.000 ptatan salgai. Egoera onean. ☎ 510401.

ROLLER karabana ttikia salgai. Ongi ekipatua. ☎ 631119. (ilunabarreko 9etatik 10etara).

Bigarren eskuko egurrezko kalefakzio kaldera salgai. Roca markakoa eta 35.000 kilokaloriakoa. ☎ 630629. (7etatik aitzinera).

Seriegrafiarako tresneria salgai, prezio onean, berria. Erosketarekin materiala oparitzen dugu. ☎ 943-619000 (Mikel).

Mendiko bizikleta eta arropa salgai. ☎ 451738.

Laisterketa-bizikleta salgai, bere arroparekin. ☎ 146633 (gauetz).

Esne-tankeak behar ditugu, 250tik 1.000 litrotara. ☎ 627531-908.778894.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Urrotzko Aitor "karpinteroak" urtarrilaren 31n beteko ditu urteak. Zorionak! Leitzako neska batzuk.


Labiaga ikastolako Txoperen partez, Itziarri: la nirekin atera nahi duzun.

Esther; zorionak eta muxu asko 21 urte betetzen dituzulako, afari goxo bat eginez ospatuko dugu. Bihotzez zure gustakoa izatea espero dugu. Ainhoa, Nekane eta Izaskunen partez.

Berako Iñaki Errandone-

ari: klasekoa egia zen. G.M.
Zorionak Maite U.: Ea noiz gonbidatzen gaituzun txanpain botila batera, eta ea noiz ikasten duzun nola sartzan den kotxea gajejan, arazorik gabe. Afari bat zain duzu, Errioxako Piperrekin. L.A., J.E., K.O., M.S.

Nekazari eta abeltzainek behar duten guztia Kutxa honetan dago



P.A.C. 98

Ayudas Compensatorias Comunitarias

Aholkularitza, Tramitazioa, Esperientzia... eta ohituta zauden arreta.

AURRERA ZAITEZ, ZURE BULEGORA JOAN ETA TRAMITAZIORAKO EGUNA GORDE



NAFARROAKO
RURAL KUTXA
CAJA RURAL DE NAVARRA

ttipi-ttapa Ameriketara bidaltzea erdi prezioan

Iparraldetik deitzeko 00-34-48-631188
Hegoaldetik deitzeko 948-631188

URTEBETETZEAK

Sail hau debaldekoa da.
Norba it zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa
Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Eider Eskudero
beratarrak 10 urte bete ditu urtarrilaren 7an. Zorionak familiaren partez.



Olatz Irigoienek 15 urte bete ditu urtarrilaren 15ean. Zorionak lagun baten partez.



Milagros Eskudero
goizuetarrak urteak bete ditu urtarrilaren 14an. Zorionak Berako familiaren eta Naiararen partez.



Rosa Mª Etxarte Urtegi oartzuarrrak 26 urte bete ditu urtarrilaren 19an. Zorionak senarraren partez.



Oier Telletxea Andueza
beratarrak urtarrilaren 26an bete ditu 6 urte. Zorionak familiaren partez.



Zuriñe Etxepare Trigueiros lesakarrak 4 urte egin ditu urtarrilaren 20an. Zorionak familia guziaren partez. Besarkada bat.



Itxaso Almandoz Erregereena iturendarrak urtarrilaren 17an 11 urte bete ditu. Zorionak ama, aita, amaxi eta Jokinen partez. Muxu bat.



Maria Sanchez Elizondo doneztebarrak 11 urte bete ditu urtarrilaren 17an. Zorionak gurasoen eta Sergioren partez. Muxu bat.



Eneritz Lanz Ortego
beratarrak urtarrilaren 11n bete ditu 11 urte. Zorionak familiaren partez.



Gaizka Martikorena Irazoki
beratarrak 10 urte bete ditu urtarrilaren 22an. Zorionak gure pilotari maiteari.



Maite Aranbilet Galtzagorri
suntildarrak otsailaren 10ean 2 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partez.



Esther Grande iruindarrak 21 urte bete ditu urtarrilaren 24an. Zorionak Ainhoa, Nekane eta Izaskun laguneren partez.



Maialen Mitxeo Oteiza
Gaztelukoak 3 urte bete ditu urtarrilaren 27an. Zorionak familiaren, bereziki Josu anaiaren partez.



Unai Telletxea Iraola igantziarrrak 2 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak atxa, ama eta Enekoren partez. Muxu handi bat.



Maitetu Abuin Arrasate lesakarrak otsailaren 13an 29 urte beteko ditu. Zorionak sukaldari! lloben partez.



Naiara Lazkano Bikondoa elizondarrak hilteltzaren 26an bete ditu 7 urte. Anai eta gurasoen partez egun zoriontsua pasa!



Sagrario Bikondoa Etxeberri 41 urte beteko baititu hilteltzaren 31n. Bere senitartekoen partetik zorionik beroenak.



Martxel Arribillaga Indaburu
beratarrak 5 urte beteko ditu otsailaren 9an. Zorionak familiaren partez.



Maritxu Iriarte doneztebarrari zorionak urtarrilaren 30ean urteak beteko dituelako. Lesakako, Sunbillako eta Ameriketako familiaren partez, eta nola ez, Jexuxin, Lentejo, Manuel, Maite, Iratxe eta Itxasoren partez.



Jose Mª Telletxea Irigoien
beratarrak otsailaren 2an urteak beteko ditu. Zorionak 'Largo' zure iloba 'pottoka' ren partez.



Antonio Irazoki
beratarrak 79 urte beteko ditu otsailaren 7an. Zorionak bere bizilagunen partetik.



Aimar Oskariz Ursuegik
otsailaren 9an beteko ditu 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guziaren partez.



Amets Inda Gorriaran sunbildarrak 15 urte bete ditu urtarrilaren 18an. Zorionak eta ea sendatzen zaren ihauterietarako.



Mª Lourdes Gortari otsailaren 26an beteko ditu urteak. Zorionak senarra eta seme-alaben partez. Asko maite zaitugu.



Engraxi Urriazar-i zorionak bere urtebetetze egunean, otsailak 2, senarra, seme-alabak eta billobaren partez.



Erreteriko **Urko Loiarteri** zorionak 9 urte beteko dituelako otsailaren 13an. Atautxi, amaxi, osaba-izebak eta lehengusua.



Javier Apetztegia Iturriak 2 urte beteko ditu otsailaren 2an. Zorionak Naiara, guraso eta amaxiren partez.



Begoña San Julian lesakarrak urteak bete ditu urtarrilaren 27an. Zorionak atxa, Miren eta familiaren partez.



Olaia Gandara Urtzegik
urtarrilaren 21ean bete ditu 4 urte. Zorionak familiaren partez.



Estitxu Sarraitea Ibarra
ainhoatarrak 16 urte beteko ditu otsailaren 3an. Muxu bat Paxi lehengusuren partez.



Maite Urrutiarri
zorionak otsailaren 5ean urteak beteko dituelako. Segi beti bezain ero eta maja.



Estitxu Sarraitea
ainhoatarrak 18 urte beteko ditu otsailaren 3an. Muxu handi bat bere familiaren partez.



Daniel Ariztia Azkarate
beratarrak 8 urte bete ditu urtarrilaren 28an. Zorionak gurasoen partez.



Tere Bereau Mazior k urtarrilaren 24 eta 29 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat familia guziaren partez.



Andoni Rodrigex Bereauk urtea bete du urtarrilaren 24an. Zorionak eta muxu bat familia guziaren partez.



Aritz Lezea Grazirena leizarrak 5 urte beteko ditu, otsailaren 5ean. Zorionak zure gurasoen partez, eta muxu bat.



Ana Belen Agerrebere
arraioztarrak 16 urte bete ditu urtarrilaren 2lean. Zorionak Nekane, Joxe, Axun eta Mirenen partez.



Txomin Sapuppo
doneztebarrak 11 urte beteko ditu otsailaren 1ean. Zorionak zure familiaren partez.



Unai Antton Astiz Izeta elizondarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Aunitz urtez gurasoen eta bereziki Amaiaren partez.



Aitziber Lizardi Mutuberria
arantzarrak urtarrilaren 20an bete ditu 9 urte. Zorionak familiaren partez. Muxu handi bat.



Goizuetako **Mª Karmen Azpiroz** zorionak bere urtebetetze egunean, otsailak 1. Goiz-argiko bezeroak.



Pepita Goia Etxebeite
beratarrak 65 urte beteko ditu otsailaren 8an. Zorionak zure billoba tikiaren partez.



Lourdes Mitxelena Txoperena lesakarrak 22 urte bete ditu urtarrilaren 28an. Zorionak potxola. Kontuz txanpainarekin!



Beatriz Maritorea Ganboa
doneztebarrak urtea betek du otsailaren 11n. Zorionak familiaren partez.



Jon Etxekoloneak
11 urte beteko ditu otsailaren 14ean. Zorionak zure familiaren partez.



Mikel Etxekoloneak
9 urte beteko ditu otsailaren 8an. Zorionak zure familiaren partez.



Mª Jose Graziarena
suntildarrak 9 urte beteko ditu otsailaren 16an. Aunitz urtez aita, ama, anai, bai amaxi eta ataxiren partez.



Izaskun Elizondo
arantzarrari zorionik beroenak otsailaren 22 urte beteko dituelako. Ongi pasa! Zure betiko lagunak.



Uxue Zabaleta
Leizako Tuteneokoa urtea eginen du otsailaren 2an. Zorionak atautxi Joxe Mariren partez.

S. SEMPER

Makineria

Ergoien Auzoa
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)
Tel. eta Faxe: (943) 49 06 19



Landini Erantzun ziurra



LAISTER ZABALIK

☎ 63 11 81

ALZAGA
UTO ESCUELA

KANTONBERRI, 2 - BEHEA • BERA • (lehen Artieda)

- Gidatzeko karneten tramitazioa
- Karneten berritzea

Laguntza Eskaria P.A.C.

Nekazariak eta Abeltzainak

Aurten abeltzainek mendiko konpentsazio kalte-ordaina ere eskatu behar dute. Informa zaitez gure bulegoetan.



Tramitatu ezazu zure eskaria gure bulegoetan

Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin